

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

44


Aurkibidea: Adolfo Arejita: *BALENDIN AURRE-APRAIZ AURRAITZ* (1912-2007). **3**. Lourdes Unzueta Zamalloa: *TRENEAN DOAZEN AMETSAK*. **13**. Fredi Paya: *ETNOGRAFIA 2100*. **16**. Xabier Zalbide: *MONTANARA TRENEZ*. **18**. Jabier Kalzakorta: *MUTHIL GAZTE BILHO HOLLIA EDO MUSDE URRUTIAREN KANTUAREN ALDAERA BERRIAK*. **20**. Miren Ibarluzea: *DISTANTZIAREN DISTANTZIATIK*. **36**. Lontzo Zugazaga: *HITZAK*. **38**. *LIBURUAK*. **40**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2007ko abenduan, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taitu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «5000 vignettes francaises», «Rustic Vignettes» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoia
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Ministerio Publikoakoa Kulturaren
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk²

Balendin Aurre-Apr aiz Aurr aitz (1912-2007)

Urte honetan joan jaku Balendin Aurre eta Apr aiz euskal idazlea gure artetik, udabarriaren ederrean, apirilaren 19a egun seinalatua. *Labayru Gaur* gure on-line aldizkariak be kronika laburtxo bat eskaini eutsan bagil erdiko alean (65. znb.). Zelan gomutara atzera ekarri ez, orain urte batzuk (1999) Derioko Udako Euskal Ikastaroaren babesean Labayru Ikastegiak omenaldi berezia eskaini eutsan idazle ajangiztarra?

Gure Ikastegiak ezeze, karmeldarren ordenakoak be estimadu euki dabe gure Balendin, eta hartuemon estua beragazko, bai Lon Arteagak eta Santi Onaindiak lehenago, eta baita Luis Arostegi karmeldarren gaur egungo Aintzindari Nagusi edo *Preposito Generale* danak, orain hamahiru bat urte Karmel Sortaren barruan Balendinen olerki bilduma atondu eta bere sarrera-lan bategaz hornidu ebana eta *Egunen bidean* izenburupean argitara emon.

Idazle bidea

Baserritar idazle hau ajangiztarra dogu jaiotzaz eta bizitzaz, nahiz beraren ganeko

biografia laburretan Gernika azaldu jaioteritzat. Balendin jaio zanean (1912), Ajangiz herri eta udalerrri zan, gaur dan antzera, diktadurapean (1943) derriorez Gernikaren buztarpera erakarri eben arte. Arte bitartean ia mende erdi iraun dau Gernikaren udal esparruan, beste albo-herri askogaz batera baina besteok baino askoz lehenagorik, harik eta 1991an atzera bere udalerrri izatearen jabe egin zan arte, baina oingoan Errenteriako auzo biztanletsua barik.

Balendin Ajangizko eleizaldekoa genduan, ez errenteriarra, herrigunearen barrenan dagoan Agerre —bertakoek *Agarre* deritxoe— baserri-etxekoa, Mendieta auzokoa. Zehaztasuntxuok euron zera dauke, ze noiz edo behin erabiliko ditu idazlanak izenpetu orduan honako goitzenok: *Agerreko Balendin*, *Balendin Agerreko* eta *Mendibide* be bai. Askoz sarriago sinatuko ditu, ostera, *Aurre-Apr aiz*, bere deitura biak bata bestearen atzean dirala, edota *Aurr aitz*, biak bat egin eta laburtuta.

Nondikoa dau euskeraz idazteko eta sormen literariorako lehia gure baserritar literatoak? Badakigu eskola handirik hartzeko

modurik euki ez ebana txikitan, eta horrek berorrek are harrigarriago eta meritugarriago bihurtzen dau haren geroko ibilbidea. Berez ei ekarren halako sentiberatasuna arte eta eder gauzetarako, eta euskalzaletasuna be goizetik erne ei jakon gogoan, abertzaletasun haizeak arnastu ahala seguruenik. Abertzaletasuna eta euskalzaletasuna men-deagaz bateratsu hasi ziran sustraiak hartzen eta mardultzen Bizkaian, eta Gernikaldean goizetiko frutuak emon zituan. Euskera kontuetan ezin da ahaztu Sebero Altuberren gerizea. Eta arteratxoago, ezta Azkuek Bilbotik *Euskalzale* aldizkariaren bidez eta batez be bere Hiztegia argitaratzeaz euskerari eta euskal literaturgintzari emon eutsan sakada sendo eta zindoa.

Ziur dakiguna da Aurre-Apraizek hogeta gitxi urteko zala aurrera egin ebala euskerazko idazlantxoak onduz eta aldizkarietara bialduz.

Gaztetarik eleizarakoa genduan hurrean, —eleizgizon izateko ez ezkontzeko biderik ez eban hartu horraitino— eta eleizgizon euskalzaleakaz hartuemon sendoa eiho eban orduxerik. Halantxe kidetu zan gudu aurreko urteetan Zornotzan “Jaungoiko-Zale” alkar-teak 1932an sortu eban *Ekin* asterokoaz: herriko barriak hara bialtzen hasi zan, Luis Arostegik haren olerki-bildumaren sarreran dinoskunez (1994, 6), “Jose Gorroño abade-ak bultzatuz”. *Mendi-bide* goitizena erabilen.

Gerratean, Artxandako burrukaldian zauritu eta atxilo hartua izan ondoren, kartze-laldi luze eta latza egotzi eutsen lepora: sei bat urte emon zituan, Santi Onaindiaren berbaz: “eritegirik eritegi, atzilo-zelai ta baitegi, lau illabetean jaikitzeke ta urtebete-an errenka, makuluekin leenengo ta maki-lleaz gero” (*Euskal Literatura*, VI, 217).

Pentsa lei, katigu-denpora luzeori ez ebala alperrerrian igaro: berez ekarren arte eder sen hori lantzen ekin eutsala dirudi, batez be musika eta poesia. Musikea “gaztetan elizan eta gero espetxean ikasia” dinosku Onaindiak (ibid. 217). Arrazoi sendoz esan leite-ke, euskera eta letra ederren arloan autodidakta dogula gehienbat: bere buruz, boron-datez eta ahaleginez hornidu zala euskera landuaz eta jakintzaz.

1950ean hasiko da bideginen euskera hutsezko aldizkari garrantzitsu bat Jokin Zaitegi arrasatearraren eskutik urruneko atzerrian: *Euzko Gogoa* (EG), Guatemalan. Jon Etxaideren bidez izango dau Balendinek horrako sarbidea eta egingo dau Jokin Zaitegiren ezagupidea. Jon Etxaideren lagun, honen *Alostorrea* irakurri ondoren egin zan, antza. Haraxe bialduko ditu aurre-rantzean Aurre-Apraizek bere lantxoak: batez be olerkiak —37 olerki guztira—, bai-na baita gutun, eretxi eta osterantzeko hitz lauzko idatzi laburrak be. Etxaideri eskaini-ko deutso “Ama alargunaren samina” deri-txan olerkia.

Euskera kontuan, karmeldarrakazko har-tuemon be, goian aitatu doguna, zaharra dau. Lon Arteagak gure ajangiztarrari eskai-niko deutso aldizkari berorretan olerki bat era honetan: “Aurraitz adiskideari, Basetan egindako azken agur oroiz”. Gudaldian eta osteko denporan hartuemon estua izan eben, aurki, euskalzale biok. Zornotzako karmel-darrak *Karmel* aldizkaria —batzuetan urte-kari modura— ateraten goizetitxo hasi ziran, eta 1954koa dau hemen bere lehen olerkia. Urte berorretan plazaratu zan, oste-an guztiz ezagun bihurtuko zan poesi anto-logia liburua: *Milla euskal olerki eder*, San-ti Onaindiaren egiletzapean: Aurre-Aprai-

zen bederatzia olerki datoz berean jasorik. Susmoa daukagu Lon Arteagaren eskua izan ete zan hautaketa horretan.

Geroago Santi Onaindiaren eskutik sortuko dira *Oleriti* aldizkaria eta Larrako Oleriti Egunak, eta horreetan be partaide agiria bihurtuko da ajangiztar olerkaria 1959tik aurrera. Olerki asko ditu hor argitaratuak, poesiaren gaineko gogoeta hitz lauzkoez ganera. Zahartzaro beteko azkenengo olerkietan ezkorrago agiri da: “Balbearen ego baltzak” (*Oleriti* 1990, 110-111). *Oleriti* aldizkariari loturik egozan Zornotzako Larran urtean-urtean eratzen ziran Oleriti Egunak be, eta honeetan hutsik bako kidea genduan Aurre-Apraiz, Bordari eta beste hainbategaz batera, batez be euren belaunaldiko idazleak.

Egan aldizkarian be goizetitxo hasi zan idazten (1955), baina 1960ko hamarkadakoak dira gure ustez horko bere lanik bikainenak, ugariez ostean; hitz neurtuz zein hitz lauz. Horreetarengo bi dira sarrera honen barrenean erantsi ditugunak.

Aranzazu aldizkarian be —frantziskotarren ordenakoen agerkaria izateak be zerikusi apurren bat eukiko dau hor argitaratzeaz— lankide izan genduan, batez be olerkiak argitaratzen zituala.

Halanda guzti be, Aurre-Apraizen inurri lana bere osoan ezagutu eta neurtu gura dauenak beste hainbat agerkaritara be jo beharko dau azterren bila. Goian aitatu diranez ostean, Venezuelako *Irrintzi* —gogoan izan behar da Ameriketara emon zituala urte batzuk, 1959-1964 bitartekoak—, *Agur*, *Príncipe de Viana*, *Goiz-argi*, *Jakin* eta azken urteotan batez be *Zer* hilerokoan.

Aipagarri da, olerkien moltso ugariak eta hitz lauzko gitxiagoakaz batera, itzulpenari

be oratu izan deusala behin edo behin, hain gogaide sentitzen eban Rabindranath Tagore-ren *Txitra* antzerkia (*Egan* 1962, 149-166) eta *Txori galduak* izenpeko aforismoak euskeratuaz (*Egan* 1969, 20-28, 39-61).

Baserritar literatoa

Idazle sekularra dogu Balendin, eleiztar handia izan arren. Baina sekularretan be bana-banakoa bizibidez: baserritarra. Euskal idazle eta poeten artean gehiago izan dira lanbide liberaletakoak —osagile, legegizon— edota azken aldiotan kazetari, irakasle eta itzultzaileak; behargin zeheak mehatzago. Baserritar izanikoak eta gero beste lanbide kaletarrago batera jo dabenak mordotxoak. Baserritar nekazariak bakan gailendu dira idazle legez. Euskereari dautsala, beharbada hainbat izan dira bertsolari, kantari, testulari edo antzeko arloetan jardun daben baserritarrak aurre-aurreko belaunaldietan; baina Aurre-Apraiz bana-banakoa dogu horretan be: Ameriketara egin eban ostera eta egonaldi ez luzeegiaren ondoren, Ajangizko —*Andxigiz* esan beharko ete dogu!— Agerre baserrian emon dau bere bizimodua, domeka eta jaiegunetan sakristau eta meza-erasote arduetan be ekiten eutsala. Horregaitik eritxan Balendin Agarreko. Eta baserritar idazlea izan dala dinogunean, berehala jatorku akordura Mogelen Berba-jardunetako Peru Abarka edo Peru Landetako. Harek ez eban burua idazletzat erakusten, bai euskera eta baserri giroko lanbide zaharren maisutzat Maisu Juan barberu kalekumearen aurrez aur. Aurre-Apraizek badau, ostera, idazle-izatearen kontzientzia. Eta aldi berean lanbide kontzientzia: baserritar izatea harrotasunez

darakus; jakitun dago beraren jatorri eta iza-teaz, eta mende bi aurrerago Mogelentzako legez, Balendinentzat be baserri bizimodua da euskaldun puruaren egoerarik gorena.

Hizkera dala-ta

Gorago aitatu dogun *Egunen bidean* bilduman datoz bere olerki-lan guzti antzekoak. Lauaxetaren *Arrats-beran* irakurri ei eban gudu aurretxoan bertan (cf. Luis Arostegi, 6). Gudatean bertan hasi zan poesiaginen, eta “Kanpantzarko guda oinetik” idatzitako *Ger-turik* poematxoa *Euzkadi* egunerokoak argitaratu eutsan (462. znb., azilak 26).

Ez da gure arloa hemen bilduma horretako olerkiak aztertu edo epaitzea. Gure karmeldar idazle kritikagileek eta bestek egina dabe hori. Gurago dogu oraingoan haren hizkerez eta euskera moduz haren gogoeta egin.

Euskerearen ganean dituan eretxiez ezer esatekotan, lehenengo, maite-maite dauela etxean eta herrian seintzarotik gehiago ikasi dauen euskerea, berea eta beretarrena.

Etxe- edo herriko eskoleaz ganera, bere euskera landuak iturri bat baino gehiago dituan arren, gudu aurreko *Jaungoiko-Zale*-ko eleizgizon idazleen ereduari gehien zor deutsala esango neuke, eta gudu ondoren Santi Onaindiaren inguruko giroari.

Aurre-Apraiz bere belaunaldiko semea dogu euskeraren estiloan. Herri-euskera zalea batetik, baina aranatar garbizaletasunaren galbahetik iragazita ia beti: lexikoan gehien, eta morfologian be ez gitxi. Eta garbizale berandukoa eta eleizgizonon eskola-koa dan aldetik, neurritz jokatzan dau horretan; gudu aurrean ohi zan baino mantoago.

Lexiko arloan aranatar edo osterantzeko garbizaletasunaren usaina edonondik darie

beronen idatziai. Urrunago joan barik beheko testuotan euron: *aurregun* darabil *bez-pera* barik; *onetsi* eta ez *bedeinkatu*, *one-raspen* eta ez *debozino*, *igali* eta ez *fruta*. Bide beretik *enderri* eta beste hainbat berba. Batzuetan bitariko berbak eskaintzen ditu, bata neologismoa, bestea mailegua: *oldozki-zun* eta *pentsamentuak*.

Aurre-Apraizen lexikoak, dana dala, piloan hartuta, bere aldiko beste askorenak legez, gehiago deutso zor askozaz be Azkueri eta honen hiztegiari, Aranari eta haren jarraitzaileei baino. Gudu aurre eta ostean beste idazle askok egin eben antzera —bizkaitarren artean Otxolua, Erkiaga eta beste gehiago aitatu leitekez—, erdal maileguak saihesteko Azkuerenean berba berezirik egoanean, hatara joko dau mailegura baino mila bider sarriago. Badira berba batzuk honen idatzietan, dinogunaren erakusgarri agiriak. Kasurako, (*h*)*ozko* darabil *fresko* esateko, eguraldia dala-ta.

Eraginak eragin, Aurre-Apraiz danaren ganetik Gernikaldeko berbakerearen espilu ederra dogu, gaur egun eskualde horretan eta berariaz baserri munduan betiko euskaldunek ohi darabilen euskera-moduaren erakuspen aberatsa.

Hizkera jagiaren aldetik, beste iturri batzuetatik —iturri landuetatik esan gura da— edan dauena igarri-igarria da. Gudu aurreko idazle-belaunaldia, Lauaxeta ororen buru dala. Gramatika-kontuetan Azkue eta Altuberen errastuari hurretik darraio, bai sintaxian, bai morfologia kontuetan, eta hona ezker ezinbestean aitatu behar darabilen aditza. Aditz trinkoetarako joera sendoa dau batetik; baita *joan* eta *eroan* adizkiak maiztasun-aspektuko laguntzaile legez erabiltekoa be. Era berean nori-dun aditz laguntzai-

leak *izan*-egaz barik **edin* laguntzaileaz eregiteko joera, ez bakarrik iraganeko adizkiak —tradizino zaharrekoak eurok—, baita orainaldikoak be —eta azkenengook tradizino zaharragaz zerikusi gitxi daukie—. Aditz-jokoaren erabileran, gogoz behintzat, zaharzale agiri da; klasikoen zale baino gehiago bizkai testu zaharrenen zale, esango genduke hobeto. Aditz kontu horretan Azkueren *Morfologia*-ren gerizea hur dabil lela esango neuke.

Lexiko-kontura atzera etorrita, ahalegin apartekoa egiten dau gaurko hiztunok ez darabilguzan eta gure ondare zaharreko diran berba bitxiak testurazten. Idatzietariko baten hau irakurri deusat: *akats itsusi ta ezain orrek*. Adjektibo sinonimook berenberegiri darabilz hor: bata ezagunagoa gaur, *itsusi*, eta bestea erabiliagoa gure klasikoe-tan: *ezain*, eta gaur, erabilia izatekotan, Markinaldean Gernikaldean baino gehiago.

60ko hamarkadako idazlanetan, zahar-tzarokoetan baino ahalegin gehiagoz saia-

tzen da bere idatziak borobil idazten: hiztegi aberatsa, esakera eta lokuzino ugariak, herri-herriko berbeta-modua idatzira ekarri-ta. Horretan Oskillaso eta bere belauneko beste asko baino —eleizgizonak barru dirala— gehiago da. Lastima gorria hitz lauz egin eban baino gehiago idatzi ez izana.¹

Hautu ditugun idazlanak

Aurre-Apraisen lantxo bi jo ditugu begiz aldizkari honetan plazaratzeko. Bata, herri-ohitura zaharren arlokoa, *Donianeetako* ekandu eta sinesteen ingurukoa. Bestea, baserritarren aldera berak idatzitako panegiriko antzekoa, gure idazle ajangiztarraren pentsamoduaren erakusgarri garbia dana. Topikoa on eginez, Mogelen bide beretsutik, kaletarrenganako mesfidantza eta hare-en uste eta bizimoduaren badaezpadakotasuna nabarmenduko ditu batetik, eta baserritarren meritu eta alde onak bestetik. Horretara dator *Baserritar gaikoiak* lana.

DONIBANEAK

(Egan, 1961, 101-103)

Hizkuntzea, ekanduak, ohiturak eta abar dira enderrien² ezaugarriarik urtenenak, eta honeikaz guztiz aberatsa da gure Euskal Herri maitea. Uri ta baserri bakoetak bere ohitura bereziak ditu, ta guk euskaldunok geure bizitzearen zati ditugu belaunik belaun geuganatutako ohitura zaharrok.

Ohitura asko herrixka edo uri bakoetako barik, toki askotakoak edota Euskal Herri guzti edo gehientsukoak dira. Honeitariko da Donibane aurregun gabea etxondoetako

baratz nahiz zelaietan suak egiteko ohiturea be.

Sarri entzun izan deutset gure zaharrai, Donibane goizean eguzkiak dantzan egiten dauela itsaso edo mendi ostetik urtekeran. Bizkaiko baso-basoan jαιο, hazi ta bizia izan arren, nik neuk ez dot inoz ikusi holako ikuskizun gelgarririk³, baina gauza harrigarri bat nabaria bai banaz Donibane goizetan: bada beti egon ohi dira intzez edo iruntzez bustita gure baso, larre, mendi ta landetako bedarrak.



Doniane goizean goiz iruntzetan ortozik ibili ezker, urte hatan arra bat hazten ei dira neskato-mutikoak-eta, pozarren joaten ginan, ohiturea baino ordu bi edo hiru lehenago ohea itxita, basorik baso ta larrerik larre, makila bana eskuetan eta bihotzak pozez, landetako lora mueta guztiakaz txorta ederrik eginez.

San Juan aldian orrilo betean egon ohi da izadia Euskal Herriko baso, mendi ta zelaietan, eta etxandera bakotzak, edo neskatzak, basolora, baratz-ari, galburu, arto landare, berakatz, madari, arkakaratz, mao ta beste etxe-liliz egindako lora-moltso eder, margotsu ta urrintsua eroan ohi dabe elizara, meza nagositan apaizak, abade jaunak, onetsi dagizan. Lora-txorta onetsi hau ondo jagonda, gordeta eukiten da urte guztian, hurrengo Donibane aurregunera arte; ta sasi-moltso batean erre orduan iluntzean, su ta gar, neska-mutilak-eta kanta zahar hau alaitasunez beterik abesten daben bitartean:

Doniane beizpera gabean,
abadeak hasarretu zirian;
ez eben besterik egiten,
alkarrerri musturrak hausiten.

Gaur dala, bihar dala Doniane,
etzi San Juan biharamone.
San Juan dabil soloetan,
Artoetan da garietan.
Artoak eta gariak kaxan gorde;
Zapoak eta sorgiñak sutan erre.
Ber-ber-ton! Ber-ber-ton!

Sugarrak apur bat makaldu daitezanean su ganetik zehar zapartaka hasten dira neska-mutikoak, atso-agure ta umetxuak hareerri begira poz-eztitan dagozan bitartean zantzoz ta irrintziz, aitatu dodan abestia guztien arte abestuz.

Etxe-jaunak, edo semeren batek, barriz, Donibane goizean, ogerik hara, gosaldubaino lehen, ortoz-ortozik joan basora ta lexar edo hareitz adar edo landare dotorerik ekarri ohi dau. Beretariko adar-zati bat gurutzez ezarri adaburuan, lora, ortuari, igali-zugatzen orri, landare ta abarrez, eta etxaurreko ate ondoan jarten dau. Elorri-adarra bere ipini ohi da, ate ertzetan, justuri ta oinaztuak uxatuteko. Donianeetako egikizun honeik, aintxinako euskaldunek Izadiarentzat eben oneraspen edo jaierea ulertarazoten deuskuela nik uste.

Euskal Herrian, kristinautasuna zabaldu baino lehen, gure asabak, antza, Izadi-jaiia egin eukien mendi ta basoak mardulen izaten ditugun aldi olerkoi honetan. Eta ohitura tolesbageok txarrerakorik ez daben ezkerro, jai honeri, Donibaneri, ezarriko eutsiezan behar bada, uda betearen jaiok, ohitura onesgarriok onarturik.

Inungo inun olerkirik bada, benetan olerkoiak Donibaneak Euskal Herrian. Beredin lora muetaz apainduta larre ta basoetako bedartza mardulak. Egunak garden, garitza helarinetan zibuka. Txoriak txorrotxiolari goiz-iluntzetan, udabarrian hasi dituen kumen poza basoai azalduten. Erreka-munak

mariorratz urdin, muxker, gorriska ta beste kolore bizi ta dotorez alai. Sorginderak zidor ertzetako lilirik lili laztanka, jaieguneko jantzita... Pozkida, alaitasuna, eresia, abestia ta bizi izateko poza alde guztietan.

Izadia jantzi barri apainenaz jantzita egun luzeenen zelai gardenean, Egile Gurenari gorazarrezko aharaia (himnoa) eresi leun eta samurren laguntasunaz alaikiro abesten.

Euskal Herri maite kutuna!
Zure ohiturak gogoratuaz
Zapartari jarten jat barna.

Aurre-Apraz
Caracas, 1961. Maiatzak 30.

BASERRITARRAK GAIKOIAK⁴

(Egan, 1964, 107-110)

Norberak irazezan noz edo behin izandako autu arinen batzuetan, norbaitzuei halako edo bestelako antza hartu deutseguela-ta harein eriko⁵ guztiek izakera bardineko etsitea, ta ez dabezan oben eta akatsak ezartea, bidebakokeri itzal eta ausarkeri haundi deritzat.

Norbere erikoen akatsak ezagututea baino errezago da izan be, gero, enpaiduak epaitutea, ta epaikari zorrotzak izan bere izan ohi gara gehienetan geideagazko⁶, ta hasi gaitezanean inun direan obenak ezarten deutseguez ezarri be, pentsau-pentsau barik.

Gizonaren barrua ezagututeko ezta nahikoa bidean topez egin daigunean haregaz, azalez izan daroaguzan hiru-lau hitzeri jaramon egin eta une hatantxe hari buruz norberakautan izan daroaguzan burutasunak ain-

tzakotzat harturik, bero-beroan geure epai zorrotza ezartea.

Bestea zelako eretxi ta xedeen jabe dan jakiteko, bihotzean ikutu behar, edonoz barik hatarako era egokia daitenean, eta halanda be, guztien ezkutuak eztira azalera-tuten. Azpisakatua baldin bada barriz, nekez edo inoz bere ez. Honelakoak, azpisakatuak, bai izan doaz gaikoiak, gehienak. Gaiaz ganetiko ames eta xedeak dabezenak errezago azaldu daroez, ba, euren bihotzeko kezka ta gogaiak, bihotz-ateak zabal-zabal egin daroetsez gogoko dakioen lagun kutunari ba-ta; baina nekez erdi adiskideai, ta inoz bere ez, aurki kale-ziloa itxita basoko arnasa garbia hartuten —oi, geure basoetako haize hozkoa⁷!— “haizea buruan eta ibili munduan” igande goizen batean baso-

zidor edo errekonduoan sekula erasoko ez deutsien txakurrak uxetetako makila haundia eskuan, mendira bizkor igon ahal izateko oski astunegiak oinetan eta aseri⁸ haundiegia bizkarrean, praka baldarregiak aldean, hatz bete lodierako betaurreko nabarmenak bekokipean eta, nik dakit ba zelako arkondarea, erdi tatarrez soinean, eta mendian ordu atsegingarri batzuk eginez gogoaz azazketako beharreko ez-tirean beste beredin tresna ezain dingilizka dabezala ta, baserritar *etxakinen* inguruan *complejo de superioridad* agertu guraz barregarriro aurkeztu daroazen kusu (txori-jabole) antzeko gizaseme bitxi baizen inundikoai.


Kalekume askok uste dabe, baserritar etxakin, kirten, baldras, gaikoi, saskel, diruzale —ez daitenak jaso begi hatza— ta zikinak gareala, harean bere. Holakoxeak baizen urrun gitxi egiaren inguru garbitik. Baserritarrak be ez ete gara, ba, bihotz-minberak ta ez ete dakigu nozik behin geure gogo-begi ta entzumenak gora jasorik gaiaz handiko zelai gardenetan geure oldozkizun eta pentsamentuak egurasten? Landoletako ingi gogaikarrien artean edo oletako tramankulu ta lanabes-zarata gogaikarrien artean konorteak gogortuta dabezanak ala baso-basoan kodaineaz azpigarri-ebaten nahiz soloan atxurraz artajorran edo abere otzanakaz goldaketan diharduan bitartean ipar hozkirriak bekokia argitu ta arnasa garbiz gogoaz sendatu ahala, Izadiaren altzo zabalean gogamen apal eta goitarrak burubihotzean dabezala bizi danak eta, ba, harremon gehiago galkeriaz?⁹

Baserritarren artean bere, uritarretan lez, guztietarikoak doguz izan eta batek edo beste ondo etxatortzuen kirtenkeririk esan deusuela-ta ezin epaitu daikezue, ba, guz-

tiak. Baserritarra, txoriak lagun dabezala, aste guztian erdi bakarrik basoen isiltasunean gogaituta, jaieguna heldu daitenean kale aldera osteratxurik egiteko gogoz izaten da, ta bera aste guztian nehikotuta dagoan basoen bakartadera helduten inundiko kaletar bitxirik ikusi badagi ikusi, hari gogoko ez dakion zeozertxu esan barik ezin itxi, ba, sarritan. Adar-jotzaileak bere badira baserrietan be, ta badaiteke “zenbat pagatzen dizute” holan ibiltarren eta holako kirtenkeriak itaundutea be, txotxolo antzean hor oztupo eta han larrapast —asketsi beiste benetako mendizaleak, neuk bere maite-maite dodaz geure mendiak ba-ta— *muxturrak* apurtuteko zorian basorik sasi aurkitu daroen kalekume bakanen bati. Baina ez uste, gero, anaia mendizale horrek, kirtenkeri horreik bene-benetan eta halan uste dabeelako esan daroetsuezanik. Baserritarrak ez-tira kaletar askok uste dozuen baizen tentel eta totoak, eta badakie —kirtentzarren bat ezpada behintzat!— zuen mendira-tutearen zioa. Bai horixe!

Baserritarrak ez gara, ba, “ziaro materialista”, ez “pesetakin neurtzen” da guretzat guztia. Beharrari gogor ekinda urtean hazi daroezan txahal bat edo bigaz eta izerdi, lor eta nekez jadetsitako beste salgaien batzuek nekez eskuratu daroezan diru apurrak norako ez zetako direan ez dakiela, ta zetan ez daukiela, etxe ingurura agertu dakioezan jantxakurrai emon beharrak bai ezarri daroatse amurru eta zer pentsau. Lau hatzeko bekokiarene jabe dan inok ez dot uste esan daikanean *materialistea* izatea danik hau.

Bere etxaldea arduraz jaboten dabelako kaletar askok gaikoitzat, diruzale ta burukoitzat etsiten dabeen baserritarra, goiz, eberdi ta iluntze, bihotza ortzira jasorik, egi-



ten deutzazan mesedeakarren Egile Gurenari eskerrak emonez zintzo-zintzo bizi dan basoko gizona ala, uri zikineta kale lohi-
ren bateko denda-ziloan betaurreko uger-
tsuen ganekaldetik erosleai susmo txarrez
begiratuaz egun santu guztian salgaiekin
batera zekenkiro atzamarrak haztatu ahale-
an diharduan gizon ziztrin eta burugina ete
doguz gaikoi eta diruzaleago?

Etxe-bazterrak hondatuz eta, ugazaba
baldin bada, maizterrai bizimodua erkinduz
nahiz galazoz labore edo arnari ederrak eta
bedar mardulak izan daitekezan, solo ta lan-
detan ler (pinu) goibelak sartuten dauzana
bai badala *materialista* ezeze, burukoi
gogorra ta gizartetik baztergarri be. Baina
ez, mendizale maiteok, ha bidertzean arin-
keriz zeozertxu esan izan deutzuen agure
zintzoa, ez ha beste mutil kirten samar bai-
zen mazala.

Egin daroaguzan kirol eta olgetak bere
“diruari intsigituta” egiten ei doguz. Egun-
do holakorik! Baserritar *gaixook* lurraz
burruka egiten baino bestetan ez dakigu,
antza!

Baserritarrak baizen ugari izan ohi dira,
ba, kaletarrak be gure pelotatoki-enparan-
tzetako kirol nahiz idi-temetako agure zatar
jokalarien artean.

Neu bere euren arteko nazanez, inok
baino hobeto dazaudaz baserritarrak, bai-
na bai kaletarrak bere; alkar ondoen eza-
gututeko lekurik egokienak direan tokie-
tan gau ta egun eurakaz luzaro egon izana
nozue, zoritxarrez, ba-ta. (*Bizi izan* barik,
egon izan dinot; ha etzan ba bizi izatea!).
Baina geu basotar baldrasok baino gogai-
lariago danik gitxi ezagutu izan dodaz, eta
asko ostera, gure aldean kirten, etxakin,
tentel, txoriburu, haragikoi —hau bere
esan egin behar!—, lizun eta *materialis-
tak*.

Kaletarrak ez daben *zera* dabe baserrita-
rrak: bada, gogokotasuna. Zuon kaletarron
mentalidatea ta gurea ez dozak, ba, bardin-
bardinak, Joannes Samartingo, neure adis-
kide begikoori. Eta kizindar-aroa nahiz ige-
targiratze-aroa izan, baserrian ezeze urietan
bere beti izango joaguz, zoritxarrez, buru-
gogor eta gaikoiak.

Arnasa garbiz bularra ase, ta Izadiaren zabaltasunak damoskuzan bihotz-ikara ta gogo-zartadetan geure barrua asaskau gura badogu, mendi aldera gaitezanean, kale bazterretako hauts eta zikin gaikoiiaz lausotutako begiz barik, begi argi, aratz, zabal, baikoi, mazal eta olerkoiakaz begiratu daiguzan basetxe inguruak, eta “loraz beterik” ikusiko doguz geure landa eze ta baso orlegiak, batez bere udabarria baldin badogu. “Lora gitxi ta simaur ta kirats asko” bakarrik inguruetan goibelkiro ta ukakor ikusi daroezan mendizale gaikoirik geure baso inguruetan ikustea etxaku ba, gogo-gogoko gogailari (*idealista*) ta bakartade garbiaren zale garean baserritarroi. Holakoai behingoan igarten deutseegu, guk basotarrok.

OHARRAK

¹ Behinolatsu bere etxera joan nintxakon aste-goien arratsalde baten, bere gomutak edo biografia antzeko zerbait idatzi beharko leukela eskatzen, eta baietz antzekoaz erantzun eustan, baina ez dakit horretarako asmo sendorik hartu ebanentz. Edadeak be bere beharra egiten dau eta zahartzaroan gogoia makalago egoten da holako arloai heltzeko.

² Enderri: aberri.

³ Gelgarri: harrigarri, miresteko.

⁴ Gaikoi: materialista. Berba hau eta honen eratorriak Eguzkitzak erabili zituan *Gizarte Auzia*-n.

⁵ “*Eriko*: izakera edo mueta bardineko. Baserritarak neure eriko dira, ni neu eurretarra nazelako” (Aurre-*Apraiz*).

⁶ Geide: lagun hurko, proximo.

⁷ Hozko: fresko.

⁸ “*Aseri*: mendira igoteko ta bizkarrean erabilgarri dan zorroa. Geure zahareri ikasia dot hau hitz hau” (Aurre-*Apraiz*).

⁹ Galckeria: galdukeria; ‘libertinaje, corrupción’.



Treanean doazen ametsak

Trena ziztu bizian doa lautadan zehar, eta iparraldeko haizeak lau haizetara hedatzen du bere txistu-hotsa. Behiek belarra jaten dihardute, ez dute bururik altxatzen.

Aurrera doa trena, eta bere txistu-hotsa entzute-rakoan pasonibelak ere itxi egiten dira, itxi egiten dira trenaren doinuak markatuko lukeen erritmoaren arabera, txu-txu, erromara behera, erromara gora, txu-txu, erromara behera, erromara gora.

Jonen gurasoak itxita dagoen horrelako pasonibel baten aurrean daude, geldi, itxaron egin behar, kotxe barruan. Gaurkoan ez doa Jon bera atzeko jarlektuhoan jesarrita. Horrela izan balitz liluratuta geldituko zen trenari begira.

—Gure Jonek, hemen bertan egon izan balitz, ez luke trenari begira presarik izango, munduko trenik luzeenak igaro beharko balu ere. Seguru nago etxean ere trena daukala jostailutzat oraintxe bertan —dio Jonen amak lasai itxuran.

Gurasoak, baina, urduri daude, erromarak noiz gora egingo, etxera hainbat lasterren heltzeko gogoz, etxean semeak, Martin eta Jon, zain daudelako.

Jonen mundua jolasleku handi bat da. Jolasleku hori kotxez eta trenez beteta dago, marka, molde, tamaina eta kolore askotako kotxez eta trenez beteta. Kotxerik edo trenik ez dagoela? Ba orduan beste edozein tramankuluk egingo luke kotxearena edo trenarena, berdin dio horrek Joni, nahiko zaio irudimena itxuraldaketa horretarako.

Etxeko egongelan sekulako tren-ibilbidea antolatatu dute Martinek eta Jonek. Hango trenak orain, egur-enborrez eta apezaz kartoletaraino beteta doan trenak, aldats gora ikusten du aurrean. Bere txistu-hotsa makaldu eta nekez eta larri ekiten dio aldats gorari, momentu batzuetan gelditu ere gelditu egingo dela ematen du eta.

—Ez gelditu orain! Eutsi! Gora egin!, gora egin! —dinotso Jonek trenari, arnasotsa atereaz trenari atzetik bultzaka egin guran, lurrean erdi etzanda eta trenari albotik begiratuta.

Tirriki-tarraka heldu da behingoz hori trenori aldatzaren gorenera, lasaitu ederra hartu du, bere txistu-hotsa berreskuratzen ahalegindu da, zati baterako bidaia dauka oraindino. Jon bera ere lasaitu egin da, erdi etzanda egotetik lurrean jesari da, hanka bata bestearen gainean tolestuta, ikuspegi horrexetatik trenaren joan-etorriak ikusiz.

Aldats gorek, ostera, badute jarraian euron aldats behera, gutxien uste izaten denean, errebuelta baten ostean beharbada, agertzen dena gainera. Trenak, orain, amildegian behera doanaren espantuzko aurpegia erakusten du, bere txistu-hotsa bizkortuz eta larrituz doa, bere buruari eta ingurukoenei larritasun-abisua eman guran. Egur-enborrek eta apeek bata bestearen kontra jotzerakoan egiten duten zaratotsa ere gehituz doa, zaratotsaz gainera kartoletatik gora egin eta lurrera jausiko direla ematen du.

Burrumbada horrek guztiak Jon erne eta adi jarri



du. Hankok destolestu eta altxatzeko keinua egin du, keinua besterik ez, trenak aldats behera dakarren abiadura biziak, batetik, eta abiadura bizi horrek trena errailetatik kanpora botatzeko arriskuak, bestetik, zur eta lur, mugitu ezinik itxi dute eta. Ez daki poztu ala ernegatu, zer egin behar duen.

Zelan edo halan, baina, aldats beheraren penderik larrienean balantzaka egin arren, trenak oreka mantendu ahal izan du, ez da errailetatik kanpora joan.

Trena mantso-mantso doa orain berriro eta iparraldeko haizeak lau haizetara hedatzen du trenaren txistu-hotsa. Triki-traka larrien osteko erritmo lasaigarrira egokitu da. Triki-trakaren eta txistuhotsaren lasaitasuna Jonengana hedatu da, lurrin moduko bat egin du bere inguruan eta, apurka-apurka, lurrean etzan, trenari alboraka begira jarri eta loak hartu du.

Paraje menditsu eta malkartsuak agertzen zaizkio begi-bistan. Trena, bere bidea egin eta, ametsetako tunelera sartuko da laster. Tunel barruan Jonen ametsak dabilta hara eta hona dantzan, trenaren zurrumbilotik libratu guran. Laster bere urtebetetzea

izango da eta, beharbada, egingo dizkieten edo hartu gura izango lituzkeen opariak dira dantzan dabiltzanak.

Hala ere, ezin ondo ikusi, tunela ilun dagoelako, apenas trenaren fokuek argitzen dute ezkutuko bazerren bat, eta inoren ametsetan sartzea, inork horrek baimenik ematen ez badu behintzat, ezinezkoa delako.

—Jon! Jon!, begira. Trena gelditu egin da, tunel barruan geldi geratu zaizu! —oihu egiten dio Martinek.

Oihuak lozorrotik aterako du Jon. Begiak zabal-zabalik, sinestu ezinik, trenak urten beharko lukeen tunel aldera joan, begi handi bat zuloaren kontra jarri eta barruari begira-begira paratuko da. “Zer jazo ete da hor barruan” dinotso bere buruari, “neure ametsekin berbetan eta dantzan gelditu ete da ba?”.

—Badakit Jon, badakit zer jazo den. Pilak amaitu zaizkiola tren-makinari, horixe da jazo dena— horra hor anaia nagusiaren arrazoizko azalpena, azalpen praktikoa. —Ez arduratu horregatik, berriak jarriko dizkiogu eta.

Bestelakoa da, ostera, Jonen ardura, baina anaia-
ren esanetara egin behar. Pilak aldatzeko unean ber-
tan heldu dira gurasoak etxera, arin egin dute euren
gelarako bidea, ustebako eta ezkutuko izan nahi
duen opariren bat hobeto ezkutatzeko asmoz.
Horrez gainera, Jonen mundua oraindino jolasleku
handia dela uste dutenez gero, ondo horniduta eto-
rri dira, eta Jonen ahotik trenaren gorabehera guz-
tiak arretaz entzun eta gero, horra hor non erakus-
ten dioten pila-piloa.

—Zure urtebetetzea dator, Jon, eta ea zelan
ospatuko dugun! —diote gurasoek. Lauron artean
hasiko dira horretaz berbetan. Hasteko, egunean
bertan, arratsaldean merienda egongo da etxean.

—Jon, eskolako nori egingo diozu etortzeko
gonbita? —eta horrela, berak ahots goraz esaten
dituen izenak idatzi eta gonbita-txartelxoak egingo
dituzte. Meriendatzeko zer prestatu-eta argi dago,
Jon tartean dela txokolatea derrigorrezkoa da. Txo-
kolate-katilukada aurrean eta, umerik zoriontsuena
da Jon, mutur guztia txokolatea dariola, ogi-zatiak
zein galletak txokolatetan bustiz zopaztu arte.

—Eta opariak? —itaundu du Jonek, bere inu-
xentasunak, bere ume-zuhurtasunak edo maltzurke-
riak jota.

—Ezin hori jakin, Jon, opariak sorpresa dira,
ustebakoak, eta jakin badakizu ez dago orduan sor-
presarik —aho batez beste hirurak.

Zalantza-aurpegia jarri du Jonek, bere ametseta-
ko oparia irudikatzen duelarik. Ez dute zalantza-
ko biderik ikusten gurasoek, seguru daude-eta ero-
si dizkioten bagoi eta tren-makina indartsuago
berriak Jonen gustukoak izango direna.

Urtebetetze-bezpera da. Ohean dago Jon, ame-
tsetan. Ametsetan gurasoak ere. Eta amets berean
korapilatuta daudela ematen du.

Jonek itzelezko txokolatezko tarta ikusten du,
bost kandela iziotuta gainean, kandelaren sugarrek
zorion-aurpegia argitzen dute, Jonen masailak prest
daude putz egin eta bost kandelok amatatzeko. Gura-
soak betetzen ez diren ametsen aldetik dabilta, eta
bertan ikusten dute Jon, aurpegia negar-anpuluz
betea, bere ametsetako oparia putz egiteko bost kan-
dela iziotuta dituen urtebetetze-tarta delako.

Etnografia 2100

Bai, bai... badirudi badabilela... bai, bai... ia bideoa ondo dabilen... argi lar agian... jeitsi zenezake gamma izpien intentsitatea mesedez?... ederto... bai, bai... hasteko moduan gara. Lehenago, gizakia lurrazalean bizi zenean sekulako burukomina ematen zizkion eguzkiaren argiak kamararekin ibili behar zuenari. Orain, ostera, erraz konpontzen ditugu iluminazio arazoak gamma izpien banaketa bonbilen bidez.

Ia ba, zu lasai, ez begiratu robot transkribitzai-leari eta lasai erantzun.

Zelan duzu izena? Aitor Atahualpa Filipesku. Durangoazpiko lurpeko seigarren galerian jaioa. 2037. urtean.

Erditze naturalez jaio zinen?

Ez. Nire ama genetikoaren aldetik anaiorderik zaharrena bai. Baina programazio genetikoaren legea indarrean sartu zen hilabete beranduago eta kode genetikoak elkarbanatzen dugun besteok inku-badorakoak gara.

Nongoak ziren zure gurasoak?

Aita biologikoa Bilbon kale salmentan zebilen senegaldarra zen, umetan Afrikan bizi izan zenez elikadura organikoa izan zuen eta ez zion eragin hogeiko hamarkadako antzutasun izurriteak.

Beraz, gau batez hotzak hil zuen kalean eta bere hazia jaurlaritzaren seigarren biziberritze planerako erabili zuten. Ama biologikoa Euskal ADN Erreserbako obulu emailea zen, hamasei euskal abizendun azken hogeitaz espezimenetakoa. Hargatik neure sudur luze eta belarri handi beltzak.

Guraso sozialak ordea nikaraguarra eta errumaniarra ziren. Espezializazio ekonomiko erradikaleko produkzio planen ondotik, badakizu guraso sozialen funtzioa psikologo adituen ustez, gure autoestimarako garrantzitsuak diren une klabe batzuen antzezpenean datzala, beraz, ez nituen askorik ezagutu, gidoitik harago.

Janari organikoa aipatu duzu lehenago, ezagutu zenituen Hiper Eroskiak?

Bai gizona! Oroitzapen zoriontsuak ditut. Gure hezkuntza zentruaren ondoan bazegoen bat. Hura zen janaria hura, negutegiko tomate hidroponikoak, a zer zaporea! Haztegiko lebatzak! Laborategiko oilaskoak! Mc Donalds okela! Baina joan zen hori guztia. Eskala etekinak lortzeko zentruetan pandemia izugarriak egon ziren eta orain pastila dietetikoak baino ez daude. Horregatik ez daukazue haginik zuen belaunaldikook. Behar ez dituzuelako. Eta horregatik da geroz eta meheagoa gure mihia, zapoak desagertu direlako.

Ume zinela, zeintzuk ziren zuen olgetarik gustokoenak?

Umetan egokitze arazo larriak izan nituen. Formakuntzari zuzendutako bideo jokoak izan dira nire belaunaldikoen denborapasa maiteena, biolentzia eta sexuarekin zerikusia zeukatenak askoz geroago ezagutu genituen, sistema informatiko orokorraren zirrikituetakoa kudeatzaileraren bidez. Aitzitik, ni beti izan naiz jolas fisikoen zale amorratua, baina ez ezazu hau grabatu, otoi. Behin, jaiotzen nintzen lurpeko galerian bizi zen agure batek pilota txiki gogor bat eman zidan. Fretegi izeneko antzinako heroi bati buruzko ipuin batzuk kontatu eta esku pilotan irakatsi zidan. Baina elikatze plan orokorrak aurreikusitako energia dosiak zortzi aldiz biderkatu beharko lizkiokete kirolean hasi gura lukeenari. Gainera, badakizu lan fisikoa txarto ikusita dagoela aspalditik, roboten kontua omen da. Lehenago mirabe edo etorkinena zen moduan. Beraz, pilota kendu zidaten.

Ipuinak aipatu dituzu, gogoan al dituzu txikia zinean zaharragoei entzundako sineskerak?

Tira, ni beti izan naiz enpirista konbentzituia. Egungo gizartearen ehuneko laurogeita hemeretziaren moduan. Horiek aurreko ezjakinen kontuak dira. Badira oraindino ere lehengoek Gabon eguna deitzen ziotena ospatzen duten bakarren batzuk. Gauza jakina den arren gizakia lurrazalean bizi zenean eguzkiaren ziklo aldaketekin zerikusia zuen jaia zena. Anatoliako Kontzilioan ezarri zuten kristauak euren buruzagiaren jaiotza eguna abenduaren hogeita lauan, guztiz arbitrarioki, aurreko ohitura ezabaezinak asimilatzeke. Baziren era berean ideologiei eusten zieten lau katu. Pertsonen askatasun eta berdintasunean sinesten zuten eta ordenagailu zentralari gure zereginak zehazteko autoritatea ukatzen zioten. Aurreko fededunen oso antzekoak ziren, batzuek hil ondoren gura zutena, besteek hil aurretik lortu nahi zuten iraultzaren bidez.

Azkenean Teknokrazia ezartzerakoan erabaki guztiak zientzialarien esku utzi genituen, egokitu ez zirenak misteriozuzki desagertu ziren eta besteok enpirista konbentzituak gara. Edo antzeko zerbait.

Gazte zinenean bizirik al zegoen kantatzeko ohitura?

Hiltzear zegoen. Badakizu alkoholarekin batera ehunka kultur adierazpen desagertu zirela. Isiltasuna da baliorik preziatuena. Pertsona langile eta isila baino gauza kontrolagarriagorik ez dago. Horrez gain kantatzen zuenak zerbait esaten zuen, eta sano gaitza zen kanta guztiak gure pentsamentu enpirikoari kalterik ez egiteko modukoak izatea. Gainera, beti kantuan ibiltzen ziren bertsolariak, jakingo duzun eran, lurrazalean geratzeko hautua egin zuten besteok lurrazpira etorri ginenean. Baina *Garaipen Ebakuntza* telesail famatua ikusi genezake eguenero, kanturik entzun gura izanez gero.

Tira ba, eskerrik asko lapurtu dizudan denboragatik, gaurkoz asko da barbarik. Hurrengo batean bueltatuko naiz galdera berriekin.

Gura duzunean mutiko, ez dakit zertarako behar dituzun agure zahar honen antiguleko gomutak, baina zer edo zertarako baliogarri bazaizkizu bada-kizu non irauten dudan. Edo lehengo zaharrek zioten eran, non bizi naizen.

Montanara trenez



Trena, mundua ikusteko moduen artean, beste modu bat da. Izan daiteke modu politagoa edo zataragoa, baina desberdina edozelan ere, eta horrek erakargarri egin izan du, trena tren moduan existitzen denetik. Etxe ondoko trena ere bai, ez dago zertan Moskuraino joan eta Transiberianoa hartu konprobatzeko. Goizero eta arratsaldero hartzen duten batzuek, beharbada, errutina-zapore mikatza aterako diote leihotik begira betiko paisaiari begira joateari. Baina autobus eta autoaren esklabo garenok, ostera, trenez goazenean errepide eta bide arruntek ezkututzen dizkiguten herriak eta lekuak ikusten ditugu: etxeostek deskubritzen ditugu, pintura galdutako hormak eta komunetako desagueak. Geografiari ifrentzua antzematen diogu unetxo batez, eta hori, nobedadeagatik besterik ez bada ere, ikusgarria da.

Udaberriaren azken egun honetan frogatu ahal izan dut modu praktikoan hori guztia. Trenzalea suertatu zait eguna. Goizean hasi da kontua, liburu bat esku artera heldu zaidanean. Mendebalde urrunera doan trenbide baten historia kontatzen zuen, hain zuzen Bilbon hasi eta Arangurenen bitan banatzen den linea horrena. Hantxe, Enkarterriko bihotzean, ezkerretara eginda, bidaiariak Balmasedara doaz, eta ausartenak Arijaraino, edo Guardoraino, eta La Roblaraino ere gura izanez gero. Eskumalara eginda, berriz, Karrantzarako bidea hartzen dute, eta ez badira aukeratik altxatzen Santanderrera, eta Praviara, eta Ribadeora, harik eta Europa amaitu arte. Duela urte batzuk —askotxo, dagoeneko— handik honantz, Ibaizabalen ertzearaino, hainbat aurpegi eta beso etorri zen. Esperantzaz beterik etorri ere, trenbide honek aspaldian zeuzkan

egurrezko bagoietan, beste zerbaiteko hoberen bila. Ordoki beilegi zabalak utzi zituzten atzean, neguan hilabeteak isolatuta ematen zituzten herrixkak, lainorik gabeko zeru amaigabeak... La Roblako trenak ikatzaren beltzetik burdinaren distira ugerrera ekarri zituen. Eta bertan geratu.

Gero, arratsaldean, tren huraxe berbera hartu behar izatea egokitu zait, kotxearen falta nola edo hala konpondu behar nuelako. Horrela joan naiz gure far west partikularrerantz, mendebaldearen mendebaldea diren Enkartazioetara. Topikoak dio bizkaitarrek eurek ez dituztela ezagutzen, eta topikoa oraingoan egiaren isla da, trenak euskaldun gehienentzat Montana bezain ezezaguna den eskualde batean sartzen gaituelako. Enkarterri muga da, eta aldi berean zubi, hango eta hemengo printzez margotutako koadroa.

Ohiko ikuspuntua aldatu eta bolantearen atzetik ikusten direnak baino ederragoak izan dira kristal

osteko inguruak: Olabeaga, zeruaren goibelaren azpian goibelago, Kastrexanako keak eta ikatz hondarrak, Irauregiko mahastiak, Arrolatzako eukalip-to zatar aldapatsuak, Cadaguako autopistako lanak... eta ondoan txikitasunaren munduak hogeimitu eskaseko ibilbide batean: Pertxetan adineko gizon bat Barakaldora zihoan trenbide abandonatuan jesarrita, pentsakor; Arbuioko ijitoak erreka ondoan pilotan jolasten; La Quadrako pinudi batean kotxe-hilerri harrigarri bat —Omako basoaren bertsio postindustrialala—. Horrelako bitxikeriak. Sodupeko geltokira heltzean, altxatu egin naiz eta zisne zuri bat ikusi dut Kadaguan, baina ez zait Kadagua iruditu, ezpada Pariseko edo Milaneko parke bateko zuhaitzez inguratutako urmaela. Montanako paisaiak eta koloreak hantxe amaitu dira, jaitsi behar izan dut trenetik eta etxerako bidean arrebaren kotxetik ikusi ditudan larre berdeak, dorretxeak, erreka garbiak, pinuak, haritzak eta lizar ederrak betiko kontu berbera begitandu zaizkit.

Muthil gazte bilho hollia edo

Musde Urrutiaren

Kantuaren aldaera berriak

SARRERA

XVIII. mendeko amodiozko kantu apart baten inguruan ibiliko gara oraingo aldi honetan. XVIII mendeko Herri lirika ere izendatu izan da, eta gehienetan neska-mutilen arteko amodioaren gorabeherak aipatzen dira kantuotan. Gure oraingo kantuak ez dira kantutegi ezagunenetan betiere agertzen diren horietakoak, ale bakan eta ezezagunaren tankera handiagoa dute, inolaz ere. Gure ikerketa xume honetan sei kantu eman asmo ditugu. Lau kantu –baxenafartar bi, lapurtarra eta zuberotarra– argitaraturik ikusi ditugu, bosgarrena eta seigarrena, ordea, guk dakigula, ez dira beste inon argitara eman. Bosgarren-seigarren aldaera hauek, orain arte ezkutuan zeutzanak gure aldizkariko *Ahorik aho* sail honetara ekarri eta, irazean bada ere, iruzkinduko ditugu. Zeru argiak eguzkia duen bezala, eraztunak ere harri bitxizko begia izan ohi du eder-garri. Gure lan honetako harri bitxia Lafitteren eta Azkueren kaiurretan dauden amodiozko kantuak izango dira. Hona ekarriko ditugun sei aldaera edo kantu-testuetan zenbat kantu daude bakarra edo bi? Galdera honi erantzuten artikuluan barrena ibiliko gara. Lanaren azken puntu bezala, ondorio bat ataritzen ahaleginduko gara.

Gure lan honetako jomuga, beraz, xumea da: ahalik eta ondoen ematea edo traskribatzea sei kantu-testuak. Eta testu guztietatik batez ere orain arte argitara ez diren Lafitte eta Azkueren paperetika-koei emango diegu gaintasuna. Iruzkinak, bildurik dagoen euskalkiari dagozkionak zein kantuaren estetika, gai, baliapide estetiko/estilisko eta abarrez egin daitezke. Guk lan handiak hartu beharrean baliapide estetiko eta estilistikoei baino gehiago alderdi konparatiboari emango diogu lehentasuna. Gure aldizkariaren mugak zaindu beharrak labur-zurrean jokatzea behartzen gaitu.

Hizkuntza-oharrak, zein neurri-oharrak ez ditugu hemen iruzkinduko. Sei eredu bertso-lerroak ere modu desberdinean tolesten ditugula konturatu da irakurlea. Puntuazioan ere beste modu aju-tuago bat erabili liteke. Guk iturriak errespetatu nahi izan ditugu. Hona ekarriko dugun seigarren eredu jatorrizko puntuazioa eta transkripzioa ez ezik, gurea ere eskeiniko dugu. Gainerako guztietan berdin jokatzeak luzeegi joko liguke. Seigarren eredu Zuberokoakenez gero zailtasun gehixeago ditu. Bosgarrenean, Senperekoan, ez dugu hain zabal eta xehe jokatuko.

Behin testuak finkatuz gero, gainerako jardueretarako bidea prestatzen dugulako ustea dugu, zein guretzat zein artikulu hau irakurriko duen irakurle ederzalearentzat.

ZAZPIAK BAT. ESKUALDUN KANTUAK LIBURUKO KANTU POLLIT BAT: AMA-ALABAK

Jose Mendiague bertsolari baxenabartarrak egin zuen *Zazpiak bat. Eskualdun kantuak*¹ euskal kantu-liburu politean bada ahurtara bat herri-kantu. Guztien artean disezagenenetako bat aldatuko dugu hona: “Ama-alabak”². Iturriari zor zaion errespetua dela eta, ahalik eta aldaketarik gutxiena egingo dugu. Aldaketa bakarra lehen ahapaldikoa da. Izan ere, jatorrizko *behartu* ez dugu hola jarriko³. Uste dugu ahapaldi horretan *behar tu hori behar ditu* ulertu beharra dela⁴, eta, era horretara, hobe *behar tu* jartzen bada.

I

*Ama denean haurrekin,
zaindu behar tu berekin,
baño baizik ez izan eta hura muthiko gaztekin,
eta erranen dut norekin:
aitoren- seme batekin.*

II

*Amak dio alabari:
–“Allé kanaille tcharra hi!
Hik behar duna hola ibili aitoren semen ondotik?
Ibiltzekotz ibil hadi,
heure gisako batekin.*

III

*–Ama zaude ichilik,
ez egin erreprotchurik;*

*gaztetasuna ignorant dela ez dakizuya engoitik?
Zure demboraz orhoitu eta
egon behar zinintazke ichilik.*

IV

*–Ez hut ez erreprotchatzen
baizik nola den erraiten;
gaztetasuna pasatu dinat arabez hik baino lehen,
ez dun ez zeren orai has hadin
disimula egiten.*

V

*–Aita, ichil zaude zu,
zuk ere zerbait errazu,
ama hunek nahi gaitu arabez desohoratu;
aita zurea naizen bezala,
zuri gomendatzen nuzu.*

Kantuaren egiturari gagozkiola, lehen ahapaldi sarrerakoak halako erakutsi edo irakaspen bat ematen du. XVIII mendeko amodiozko kantez batez ere azkenean izan ohi dute halako aterakizun edo moraleja bat. Oraingo ale honetan, ordea, kantuaren sarreran dugu aterakizuna edo protimioa⁵: *Ama denean haurrekin zaindu behar tu berekin*. Gainerako hiru ahapaldiak ama-alaben arteko elkarriketa dugu. Azkena, aldiz, alabak aitari zuzentzen dizkion hitzez osatzen da. Hizkuntza aldetik ohargarria da alaba amari zein aitari zuka zuzentzea, aldiz, ama alabari hika⁶.

SARAKO KAIERREKO AMA BATEN KONSEILUAK KANTUA

On Jose Migel Barandiaranek, Saran, Lapurdin, kantu-kaier bat kopiatu eta argitara zuen bere aldizkarian⁷. Guk atal honetan kaier horretako eredu polit bat aldatuko dugu, “Ama baten kontseiluak” izenburua duena. Aldatu, gainera, dagoen-dagoene-

an, bere jatorrizko puntuazioa ere ahalikako gehien errespetatuz. Hona hemen:

1

*Amak⁸ dio alabari: ala kanaila charra hi
Hik behar duna ibili aitoren semerekin,
ibiltzekot[z] ibil hadi hihau iduri zombeitekin.*

2

*–Ama, zaude ichilik ez erran othoi gaizkirik
Gaztetasuna innozent dela ez dakizuia engoitik [?]
Zure dembora[z] orhoitu eta othoi ez egin nigarrik.*

3

*–Jaun gazte bilo horia, ofiziale berria,
Gaztetto danik egin diozu andregaiari gorthia
Kitazak kita herria galdu gaberik bizia.*

4

*–Kitaturen dut herria galdu gabe bizia,
Ene amak haziren du ene lehen fruitua,
Eta nik berritz ikhasiren Española bidia.*

5

*Mus de Urruti, aitzazu etzaitzu behar gaitzitu:
Zuk ene arreba nik zure alaba biek ditugu trompatu.
Mus de Urruti, barkhatu: zorrak zorra du pagatu.*

Kantu honetako lehen bi ahapaldiak eta gorago-ko “Ama-alabak” bat datoz. Beste hirurak, osterak, beste kantu batekoak ote dira? Edo kantu berare-nak? Hurrengo puntuetan azken hiru ahapaldiekin zerikusia duten aldaerak ekarri eta iruzkinduko ditugu.

Kantuaren euskarari gagozkiola, zeintzuk lirateke ohar interesgarrienak? Hirugarren ahapaldian, esaterako, mutil gazte ofizialari zuka eta hika biak ikusten ditugu, hau da, *egin diozu* eta *kitazak*. Nahasdura hori gorabehera, beste zerbait iruditzen zaigu interesgarriagoa. Sarako ereduan ekialdeko

euskararen, Zuberoko euskararen arrastoak ikusten ditugu. Futuro edo etorkizuna egiteko adizkiak: *kitaturen dut, haziren du...* Beste zenbait formatan ere ekialdeko euskararen ukitu garbia du. Hitz bat markatzekotan *musde*⁹ egingo genuke. Hitz hau zenbat eta ekialderago erabiliagoa da tradizioan. Ekialdetasun honek, gure ustez, bere jatorria salatzzen digu. Baina oraingoz utzi ditzagun kontuak bere horretan.

CHAHOREN KANTUTEGIKO MUTHIL GAZTE BILHO HOLLIA ALDAERA

Joseph Augustin Chahoren –edo nahiago bada gaurko euskal grafiara eta euskaraz berak izenpe-tzen zuen erara ekarririk– Agosti Xahoren kantu-bilduman bada guri dagokigun kantu beraren alda-era zoragarri bat. Bilduman izenbururik gabe ager-tzen denez, hasierako hitzez osatuko dugu kantuaren izenburua: “Muthil gazte bilho hollia”¹⁰. Kantu hori atal honetara ekarri eta zehaztasun zen-baitez hornituko dugu.

Hona, aurrera baino lehen, gure ereduaren ingu-ruko zehaztasun zenbait. Transkribaturik dagoen orrialdean, ezkerraldera, *Ziberoutarra* hitza dator azpimarraturik, kantua Zuberokoa delako. Kantua-aren eskubi aldera *mettre en Navarrais* oharra dator, kantu beraren aldaera baxenafartarra ere bazela adierazten duela. Aldaera baxenafartar hori “Men-dian zoin den eder epher zango gorri” ote da? Hurrengo puntuan ikusiko dugunez, Baxenafarroan era horretara hasten den aldaera ezagutzen dugu. Xahok ere ezagutu behar zuen kantu hori baina ez dugu haren bilduman ikusi¹¹.

Atal honetara bi eratara –lehen eskuidatzian agertzen den bezala eta bigarrena gaurkoturik– transkribatuko dudan kantuan beste inongo kantuan agertzen ez diren bi ahapaldi daude: azken biak. Nahiz eta kantu-aldaera honi iruzkin handirik egin-

go ez diogun, kontu ohargarri bat edo besteren berri emango dugu atal honetan.

Laugarren ahapaldian egitura berezi batekin aurkitzen gara: *hasperena bihotzian /eta nigarra begian*. Egitura hori indar bereziko da: barnakorra bezain adierazkorra. Nahiz eta era askotako kantetan usua izango zen, guk batez ere despedida kantetan aurkitu dugu. “Partitzeko tenorea” kantuak honela du hasiera: “*Orai düzü, / ene maitea, / partitzeko tenorea. / Hasperena bihotzean / eta nigarra begian. /...¹²”*. Beste kantu batzuetan ere aurkitu dugu. Eskuidatzi batetik, kasu bat ematearren, “Hogueyta hamar ourthe dian gizon batec” saileko azken ahapaldia hau da: *11-Jourayten nintsalaric itchasos ountzian / Hasperena bihotsian nigarra beguian / adichkider igorteko Hau[(e)c] eguin nutian / Khanta detsen oroec oy uskal-herrian*.

Bosgarren ahapaldia da iluntxoena gaurko begietatik ikusita. *Arristiriko ekhia / zeren dizü erdia¹³* nola ulertu behar da? Uler daiteke koplazaharren tankerako irudi baten bidez; uler daiteke herri-siniseria edo hobeto esateko herri-esan ironiko bat barruntatzen bada. Eman dezagun azalpentxo bat. Neskatala gazteak umea egin du, kantuan garbi dagoenez. Umea eragin ziona ofiziale gaztea da. Gauzez dira elkartzen amoranteak, gehienetan. Gauzko elkartze hori gauzko, gauerdiko edo arristiriko zeren¹⁴ aipatzen dela egiten da. Etxahunek bi ahapaldi eder utzi zizkigun uste edo esaera hau argitzeko. Hona “Gaztalondoko neskatilak” khantoreko 14 eta 15 ahapaldiak: *Gaiazko zerenak nik entzütia badit, / Eritzen dürtiala neskatila gaztik; / Ta gero sendotzeko behar hilabetik, / Hiru, lau, bost, sei zazpi, zortzi, bederatzik*. 16-*Neskatila gaztiak, abisa zitaie. / Gaiardi zerenatik begira zitaie; / Zumbait irus segreki libratüirik ere, / Püblikatzen direnak haboro dirade*. Gauazko zerenak neskatila gazteak gaixotzen zituelako esamesa airez aire zebilen garai batean. Gaixotasun hori bederatziz hilabeteren ondoren sendatzen zen, haur berriaren etorrerarekin...

Xahoren bosgarren edo azken ahapaldian bada segmentu bat *Zoure et’ene amourioua(z)* eta are esaldi osoa ere *Zoure et’ene amouriouaz / Jelossi da mundia* bestetan ere ikusten direnak¹⁵.

I

Muthil gazte bilho ho(i)llia
ofiziale gaztia,
untsa segretki egin deriok
anderiari khortia.
Kita ezak herria,
galdüren dük bizia.

*Mouthil gazte bilho hoillia / Officiale gaztia /
Ountsa segretki eghin deriok / Anderiari khortia /
Kita ezak herria / Galduren duk bizia.*

II

–Kitatüren düten herria
galdü gabe bizia.
Ene amak haziren dü
ene lehen frütia,
bai nik ere ikhasiren
Españalako bidia.

*Kitaturen dut herria / Galdu gabe bizia / Ene
amak hassiren du / Ene lehen frütia / Bai nik ere
ikhassiren / Espagnolako bidia.*

III

–Españalako bidia,
ala bide lüzia!
Gibelerat sogin eta
hasperenak ardüra,
eia nuntik entzünen nian
bi balaren hüxtia.

*Espagnolako bidia, / Ala bide luzia / Ghibelerat
soghin eta / Hasperenak ardura / Eia nuntik entzünen
nian / Bi balaren hüxtia.*

IV

–Entzüten nianian
zure botza karrikan,
juaiten nintzan khanberala
eta jarten leihuan:
hasperena bihotzian
eta nigarra begian.

*Entzuten nianian/ Zure botza karrikan/ Jouaiten
nintzan khanberala/ Eta jarten leihouan/ Haspere-
na bihotzian/ Eta nigarra begian.*

V

–Arristiriko ekhia
zerena dizü erdia.
zure et'ene amuriuaz
jelosi düzü mündia.
Oi maïtia, o[i] maitia,
ez düzüla antsia¹⁶!

*Arristiriko ekhia/ zerena dizu erdia/ Zoure et'ene
amouriouaz/ Jelossi duzu mundia/ Oi maïtia, o
maïtia/ Eztuzula antsia.*

Kanta hau nola ulertu? Hona gure azalpena. Lehen ahapaldian neskatilaren aitak gogor egiten dio ofiziale gazte bati. Zergatik? Alabari korte egin eta haurdun utzi duelako. Lehen ahapaldi hau hone-la ulertzen dugu gainerako erduek argia eman digutelako. Bigarren ahapaldia mutil ofiziale gazte-ak bere maite-lagunaren aitari ematen dion erantzuna da. Hirugarren ahapaldia mutila bere buruaz ari dela dirudi, gertaera bat bere artean gogoratzen ari balitz bezala. Azken bi ahapaldiak neska-mutilen arteko elkar hizketa bat da: laugarren ahapaldia neskatilari dagokio eta bosgarrena mutilari.

AITA DONOSTIAK BILDUTAKO EPER ZANGO
GORRIA ALDAERA

Behin honetaraz gero ezinbestekoa dukegu Aita Donostiak Bankan, Baxenabarren, bildu zuen alda-era hona ekartzea¹⁷. Hiru ahapaldi baino bildu ez zituen arren, bete-betean datoz Xahoren aldaerako lehen hirurekin. Euskara ereduari eta hitzei gagoz-kiela, hurbilago dago, ordea, Barandiaranen Sarako ereduarekin. Hona hemen, beste gabe:

1

*Eper zango gorria,
mendi gainean sortia.
Gaztet[t]o danik
egina diok
andregaiari gortia.
kitazak [h]jerria,
galdu gaberik bizia*

2

*–Kitatuko dut [h]jerria:
maiteago dut bizia.
Ene aita-amek [h]aziko dute
ene lehen fruitia.
Eta ni[h]aurek askiko dut¹⁸
Espainiara juaitia.*

3

*–Espainiako bidaia
[h]jura bidaia luzia¹⁹.
Ardura ardura itzultzen nuen
gibelerat buria.
Nundik adituko nuen
tiro balaren soñia.*

Aldaera honetako lehen ahapaldia eta Sarako hirugarrena bat datoz gauza askotan. Hitzetan bere-tan ere: *gaztetto danik²⁰, gortia, andregai...* Hemen, ordea, irudi berri bat agertzen da: *eper zan-*

go gorria. Irudi hau, jakina, beste kanta batzuetan ere agertzen da. Irudi honen azpian zer adierazi nahi ote da²¹? Hitz batean esateko, mutil kortejan-tea dela esango genuke, beste adibide batean baino gehiagotan irudi bera hitz berekin ere agertu ohi delako. *Ep(h)er zangogorria* ez ote da garai bateko soldadu edo ofizial galtzagorrien gainean eraikitako metafora formal bat²²? Gainerakoan, alderatasunak begien bistakoak ditugu.

Atal honekin bukatzeko aipa dezagun konturik harrigarrienetako bat. Euskera ereduaren aldetik, Sarakoak ez ote du ekialde ukitu handiagoa Alduden bilduak baino²³?

LAPURDIKO ALDAERA ARGITARAGABEA

Piarres Lafitteren mendean zegoen Marcel Arribillagaren kainerrean, Lapurdiko aldaera argitara gabe dago transkribaturik. Kaierrak Saint-Pée-sur-Nivelle herri-izena jartzen du. Herri hori ez da besterik Senpere euskal izena frantsesturik baino. Erabat argia eta ederra denez, ez dugu aldatuko ez grafia ez puntuaziorik. Hona, 19. orrialdean datorren alea.

1

Choriñua norat hoa bi hegalez airian
Espainiarat juaiteko elhurra duzu bidian
Bi biak juanen gitutzu elhurra urtzen denian.

2

San Josepen ermita desertuan gora da
Espainiara juaitian han da ene pausada
Gibelera so egin eta hasperena ardura

3

Hasperena habil hua ene maitiaren borthara
Habil eta erran ezok nik egorri hautala
Sar hakio bihotzian hura eni bezala

4

Mousde Urrutia leihotik eta ni aldiz kampotik
Bihotza erdiratu zautan behatze ezti batekin
Iduri zuten haren begiek izar zirela zerutik

5

Ene charmagarria huillan duzu Eliza
Zombeit aldiz jinen zira harat meza entzutera
Begiz keinu eginen duzu ezin mintza bagira

6

Hortzak²⁴ churi begiak belch ene maitia zerenez
Mundu guziak diozu ni nizela traidore
Orai arren erradazu hola nizan edo ez

7

Aristiriko ekhiak zerena²⁵ dizu erdia
Zure eta ene amodioaz pleini duzu mundua
Mundu orenen ichilik maite behar gira

Euskara ereduari gatxezkiola, eredu zuberotarra lapurtarturik ikusten dugu. Tratamenduen sistema dela eta, lehen ahapaldian berean, hika zuka nahasketak bitxi egiten da.

Eduki zein azalari gagozkiola, hona aldatu dugun aldaera berri honek baditu hainbat eredurekin oihartzun argiak. Lehenengo eta behin, lehen hiru ahapaldiak *Xoritua nurat hua* kantarenak dira; gainerako guztiak guk aztergai dugunarenak. Aldizkari honetarako leku faltaz gaudenez gero, gain-gaineko iruzkin batzuk egingo ditugu. Laugarren ahapaldiak hurrengo puntuan transkribatuko dugun Azkueren bigarren ahapaldiarekin bateratasun argiak ditu. Laugarren honek, gainera, Xahoren laugarrenarekin ere badu kidetasunik; gertaerak, ordea, alderantzitara daude. Senperekoan, Musde Urrutia dago barrutik eta neskatila kanpotik, Xahorenean alderantziz. Bosgarren-seigarren ahapaldiak berriak dira eta gure amodio-ixtorio hau argi-printz berriz osabetetzen dute. Zazpigarren ahapaldia

Xahoren V ahapaldiaren Lapurdiko ordaina da, bete-betean.

Hizkuntzari gagozkiola, bateratasun argiak ditugu. Zazpigarren ahapaldian *aristiri* hitza daukagu, Xahorenean *aristiri*, bietan modu beretsuan: *ar(r)istiri*. Berdin gertatzen da *zerena* hitzarekin ere: bietan *ze-* batez dator.

MUTHIL GAZTE BILHO HOLLIA KANTAREN AZKUEREN KAIERREKO ESKUIDATZIAREN TRANSKRIPZIOA

Ataltxo honetan Azkuek kanta bilketarako erabiltzen zuen *cuaderno de campo* edo bilketa-kaier bateko kanturik politenetako bat transkribatuko dut hitzez hitz. Kuaderno edo kaier horri *kuaderno gorria* deitu ohi nion lehen, azal gorriduna zelako. Orain, sailkatzeko signatura berriak kontuan harturik, 001-002-001/003 signatura darama. Ez dago esan beharrik kaier hau Euskaltzaindiko Egoitza Nagusiko Azkue Bibliotekan datzala. Gaur eguneko aurrerapen zein liburuzain prestuen ahalegin eskergaitzari esker²⁶ digitalizaturik daude kaierreko kanta guztiak. Atal honetan hemen transkribatuko dudana kuadernoaren azkenaldeko gehigarrian, 20. orrian, 780 kanta zenbakia daramana da. Kanta hau ez zuen Azkue handiak transkribatu ez baita lekeitiar ikertzailearen letra. Beste transkribatzaile batek, zuberotar batek, –inongo eta inolako dudarik gabe– transkribatu behar zuen. Neure ustea gehiago zehaztera, Zuberoako Basabürükoa dela esango nuke, Larrañekoa, hain zuzen²⁷. Pentsatzekoa da transkribatzaile arduratsuak arreta berezia jarri zuela kanta argi baino garbiago ematen; pensatzekoa da, era berean, letra ezinago ederrez idatzi zuela kantak inolako ilun unerik ager ez zezan.

Ederra duzu begia, ene charmagarria. Hortzak chouri, ezpañak gorri, mundian paregabiak. Bizi nizano nahi nikezu zoure eskutik ogia– Ene maitia leihoti eta ni alde kampoti. Larria chouri, kolore gorri eta bera charmagarri; haren begiek die uduri izar direla zeluti– Esku chourian zoiñen eder erhaztun begi berdia! Nik maiteño bat dudalakoz, jelosi duzu mundia. Orok bedera har beza eta eni utzi enia– Mithil gazte bilho hollia, ofiziale berria, ountsa segreki egin deriok anderiarri khortia. Kita ezak herria, galdu gabe bizia– Kitaturen dut herria galdu gabe bizia. Eta bertan harturen dizut Españolaatko bidia: zoure alhabak haziren dizu ene lehen frutia– Españolaatko bidia ala bide luzia! Bide gibelialat so'egin eta/ hasperena usia: eia nouiz entzunen nian bi balaren hustia– Mousde Urrutia pharkatu zu bazutut ofentsatu. Nik zouri beno lehentchiago zuk eni egin afrountu: zorrak zorra phakha eta orai kito gutuzu.

Gure aldizkarian eskuidatziari egin diogun argazkian ikusten denez, kanta bi orrialdetan berezirik dago, 20an eta 21ean. Orrialde aldatze hori / markaz markatu dugu geure transkripzioan. Kantako hitzak jarraian daude idatzirik bertsolerroak bereizi gabe. Bertsoak edo ahapaldiak, ordea, marratxo batez berezirik daude. Bokalismoari dagokionez, ondo berezirik daude *ou* eta *u*. Lehen gure *u* da *chouri*, *afrountu*, *mousde*, *zoure...*, bigarrena *ü* zuberotarra dugu: *müündü*, *eskü*, *gütü-zü...* Bi fenomeno edo gertaerak adibide bakar batean irudikatzen *afrountu* hartu eta honelaxe ekarriko genuke gaurko grafiara: *afruntü*. Kontsonanteen grafemak ere ondo daude berezirik. Eskuidatziko *ch/tch* grafemak gure gaurko *x/tx* ordezkatzeko dira. Kontsonante aspiratuak ere ondo markatzen dira eskuidatzian. Era horretara charmagarria, *chouri*, *xarmagarri* eta *xuri* egin ditugu; *Lehentchiago* eskuidatzikoa, guk geure grafian, *lehentxiago* irakurri dugu²⁸.

780 / Edera duya begia, em charmagaria.
Hortzak chouu, ezpantak gorri, mundian paregabiat
Bizji nizano nahi nitkezu goue eskutikogia — Ene
maitia leihoti eta ni alde kamphoti. Larria chouu,
Koloro goue eta bera charmagari; haren begiak die
aduri izat ditela zeluti — Esku chourian goinon
eder erhasatun begi berdia! Kik maitenõ bat
Andalatz, jelsi duya mundia. Orolk bedera har
bege eta em utzi enia — Nithil gazte bilho hotlia
ofiziate beria, oantsa segretki egin deriok anderian
Khorria. Kite ezak heria, galda gabe bizia — Kita.
Kun dat heria gabu gabe bizia. Eta bertan
harturen digut Espanialatko bichia: goue alhebat
haziren duya ene lehan frutia — Espanialatko
bichia ala bide luzia! Bide gidahalat jo egin eta

hasperena usia: eia nouiz entzumen nian bi
balaren hustia — Musede Erutia pharkatu ^(zu bazutid) ~~jofer~~ -
tsatu. ~~bazutid~~ Kik goue bano lehentchiago zut em
egui afrouate: gouat gorra phakha eta orai Kito
gutuzen.

ESKUIDATZIAREN GRAFIA GAURKOTZEA ETA OHARRAK

Azkenurreko atal honetan *–in cauda venenum* esan ohi zuten erromatarrek– Azkueren kaierreko kanta gaurko grafiara ekarri eta ahapaldika banatu edo tolestuko dut. Orain arteko kanta guztiak ederrak badira ere *–zein bere mailan, neurrian eta izarrian–* oraingo hau ederrenetan ederrena iruditzen zait. Harrigarria badirudi ere, transkripzioirik zaharrena den Xahorena baino ahapaldi gehiagokoa da.

Behin ahapaldia gaurko grafian dugula, kantaren ohar estilistikoak eta konparatiboak egiten saiatuko naiz batez ere. Atal honetara ez dugu ekarri ahapaldi bakoitza bere jatorrizko transkripzioan. Jatorrizkoa ikusi nahi duenak jo beza aurreko puntura edo artikululu honetara ekarriko dugun argazkira. Amodiozko kantuak iruzkintzeko orduan, bestalde, *Kantu Kanta Khantore* liburukoak ekarriko ditut, liburu bakar batean liburu klasiko eta enblematikoena delako.

Egin litezke, nola ez, hainbat hizkuntza-ohar ere, baina lana gehiegi luzatuko litzaiguke. Gure oharrrak batez ere amodiozko kanten parekotasunak eta *topos* direlakoak adieraztera mugatuko da.

1

Ederra düzü begia, ene xarmagarria.
Hortzak xuri, ezpañak gorri, mündian paregabia.
Bizi nizano nahi nikezü zure eskütik ogia

Amodiozko kantuetako lehen ahapaldia neskati-la maitatuaren deskripzioaz osatu ohi da. Guk azterkizun dugun lehen honetan *begia(k)*, *hortzak* eta *ezpainak* hartzen ditu goraipagai. Hemen hain garbiro ez bada ere, XVIII. mendeko amodiozko kantuetan agertzen den sinekdoke zoragarri bat, *pars pro toto* sailekoa, *begia* hitzak borobiltzen duena da. Izan ere, amodiozko kantuetan *–askotxotan ez beti, jakina– begia* hitzak batez ere aurpegia edo are gorputz osoa adierazi ohi du. Kanta hone-

tan ere, esaterako, *ederra duzu begia* delako esaldiak ez ditu, nahitanahiez, begiak bakarrik adierazten. Dударik ez dago aurpegiaz hitz egiten ari da eta are gorputzaz ere²⁹. Eman dezagun beste adibide bat. “Kalla kantuz” kantan, hirugarren ahapaldian, *Aspaldian ez dut ikusi neure maitiaren begia* esaldian ez da ari *begiaz* *–edo, nahi bada pluralean, begiez–* maiteaz bere osoan baino³⁰.

Maitea edo xarmagarria kantu gehienetan izan ohi da *paregabea*. Modu askotara formulatu ohi da paregabetasun hau: “Oi maite xarmegarria”: “3- /.../.../ ez daukazu munduan parerik³¹”.

Bizitzak dirauen arteko maitasunaren *topos* nundiknahikoa eta nonahikoa amodiozko beste kanta batzuetan ere badaukagu. “Bortian Ahuzki” kantuan: “6-.../.../ Maite iikhenen zütüt hargati nik bethi,/ gero izanen gira biak algarreki”. Gure atal honetarako, beharbada, berdin formulatzen den amodioa da interesgarria. “Aphirilian gaua da labur...” horretan 3-“(zureganako amodioa) hemen dut eta hemen izanen/ munduan bizi naizeno”, “Argia dela diozu” kantan 3-.../ har nezazu saihetsian,/ bizi naizeno mundian”. Azken bi haue-tan, gure kantan bezalaxe, forma klitxetu berbera agertzen dela guztietan: (*munduan*) bizi n(a)izeno. Antzekotasun handiagoa eskeintzen duen kanta bat ere badugu; “Eguntto batez nindaguelarik” kantako hirugarren ahapaldiak honelaxe dio: “Oro eijer oro pollit zü zira, ene maitia;/ Zure eskütik nahi nikezü bizi nizano ogia,/ eta gero ni nükkezü zerbüttxaria”. Berdintasun zoragarri eta hitzez hitzezkoak *topos* klitxetu baten aurrean gaudela erakusten digute, zalantzarik gabe³². “Eguntto batez nindaguelarik” kantan ere agertzen den formulak bakarrik ordena aldaturik ikusten dugu³³.

Hizkuntzari dohakionez, lehen ahapaldi honetan zein bigarreanean, harrigarria da Zuberoako kanta izan eta *ederra* agertzea eta ez *eijerra*. Zalantza bat sortu zait transkribatzeko orduan. Nola irakurri *mündian paregabiak* edo *mündian paregabia*?

Lehen idazketan transkribatzaileak pluralean jarri du “paregabiak”, *hortzak chouri* eta *ezpalak gorri* horiekin konkordantzia eginez. Gerora, ostera, ezabatu egin du azken -k *maitea* bera delako *paregabi*³⁴.

2

Ene maitia leihoti eta ni alde kanpoti.
Larria xuri, kolore gorri eta bera xarmagarri;
haren begiek die üdüri izar direla zelüti.

Beste kantu batzuetako ahapaldietan ere agertzen dira kanta honetako *topos* zenbait. Neskatala maitearen zenbait ezaugarri: *larrua xuri* eta *koloreak gorri* “Maitiak bilhua holli” kantan ere agertzen da: *Maitiak bilhua holli/ eta koloriak gorri;/ esküko larria xuri, zilhar fina üdüri,/ eta bera xarmagarri best’ororen gaiñeti.*” Badago, bestalde, koloreei dagokienez analogia polit bat bigarren ahapaldi honen eta lehenaren aurrean. Ahapaldi bietan kolore xuri-gorriak aipatzen dira. Lehenean *hortzak* dira xuri eta *ezpainak* gorri. Bigarren honetan *larrua* da xuria eta *gorria*. Azalaren edertasunaren kontzeptu hau bestetan ere ikusten dugu. “Ikusterat hedu nitzauzu...” kantako azken ahapaldian xehetasun hauek datoz: “9-*Xurian xuri, gorrian gorri... xarmagarria zirade;/ Bihar berean jar banindadi bi erresumaren jabe,/ Horiek oro deus ez litazke, ene maitea, zu gabe! (bis).*” “Mundian den ederrena” kantan: “1-*./.../ begia düzü ñabarra, xuri-gorri larria,/ ene begietako xarmagarria*”.

Hizkuntzari gagozkiola -ti batez egindako ablatiboa: leihoti, kanpoti, zelüti. Adizkiei gagozkiela ohargarria da *die* adizkia “dute” adierazten duela. Are ohargarriagoa date *die üdüri* egitura eta ez *üdüri die*³⁵...

3

Eskü xurian zoiñen eder erhaztün begi berdia!
Nik maiteño bat düdalakoz, jelsoni düzü mundia.
Orok bedera har beza eta eni ützi enia.

Kopla zaharren tankerako ahapaldia. “Esku xurietan” kantan ere antzera hasten da: 1-“*Esku xurietan eder arrosa/ eder arrosa/ are ederrago zitroina*”. Luis Ligeix larraintarrak ezagutu ote zuen herri kanta hau? Baliteke ezagutzea. Gure herri kanta hau ere Larrainekoa da itxura guztiak direnez. Ahapaldi hau buru-bihotzetan zukeela, gure uste apalean, Luis Ligeixek “Oihan beltzian” eztei-kantaren laugarren ahapaldia sortu zuen: Espusa gazte baten erhian zuñ eijer den erhaztuna!/
Harek beitiio muthil gaztier: “Etziteiela ingana:/ senhar hun baten erdireiteko egün izan dütt fortuna,/ Hari emanik bihotza oso bai eta gaztetarzüna.

Betiko amodioaren seinalea eskuko erian gordetzen den eraztuna da. Eraztun hau urrezkoa izan ohi da. Maitasun kantuetan beti konposizio zaharrear: *urh(e) er(r)aztunal urh’eraztuna*. Zenbait kasutan, amodioa gaizki ateratzen bada, nigarstatu egin ohi da urheraztuna. “Hasten naiz orai kantatzen” kantan, esaterako: “5-“*Urhe erraztuna dut nik/ zure eskutik izanik:/ Hura nigarstatu gabe/ ez dut pasatzen egunik!*”. “Agur, oi izan maitea” edo “Sukar malina” kantan honela agertzen da seigarren ahapaldian: *Urh’eraztuna bat badut nik, bere ederrez harturik,/ hura ikusi arteraino zuk zur’erhian sarturik,/ ene bihotzak ez du izanen oren baten deskantsurik*³⁶. Urrezko eraztunari balio handia eransten dio txertaturik duen harri preziatuak. Harri preziatu honek euskarazko kantuetan *begia* bezala izentatzen da. “Partitu nintzen herritik” kantan honelaxe dator seigarren ahapaldian: “6-*Nik eman erreztun hura ez zuzun bada kobria,/ ez zen eta ere zilharra, bainan zuzun urria,/ diamantezko begia!*”. Gure ahapaldiko kasuan “begi berdia” delakoa esmeralda harri preziatuz egin dela dirudi³⁷.

Bi maitaleen artean sartzeari gaitzesten da amodiozko kanta batean baino gehiagotan. Inork zer du esatekorik neska-mutilen arteko amodioan? Kontu hau *topos* bat dugu amodiozko kantuetan. Jendeak, munduak, hitz batean, gainerako guztiak, zer dute

axola? Hona hemen, kasurako, “Argizagi ederra: “7-Jendek erraiten dute hal’ezdena franko,/ Izar xarmagarria, zur’et’enetako:/ Gu ez girela gisan elgarrekilako;/ Bi hok akor bagira, nori zer dohako?” “Arranoak bortietan” 5-“Egin diot arrapostu (anaiari) nola beitiü merexitiü/ harek ere zunbait beitiü, nik hetzaz güti profetiü./ Uzten düdala hura bereki, ützi nezan ni eneki phausü”. “Atsein harturik” 4-“Nihor ez daite fida orai munduari!/ aintzinetik eder ta gibeletik irri:/ hala egin dautate aspaldian niri / erreportak eginik ene maiteari!”

Ohargarria da ahapaldi honetan datorren *jelosi düzü mündia* Xahoren azken ahapaldian ere badatorrela. Ideia bera, ordea, hemen aparteko indarrez datorrela ezin uka.

4

–Mithil gazte bilho hollia, ofiziale berria,
 ountsa segreki egin deriok anderiari khortia.
 Kita ezak herria, galdü gabe bizia

Ahapaldi honen sarrerak beste kanta bat gogorazten digu “Muthil gaztia”, hain zuzen. Hona lehen ahapaldia: *Muthil gaztia,/ Bilor horia,/ Burian duka banitatia?/ Uste duk bai naski/ Haizu dela bethi/ Gortiarene egitia andre orori*. Ahapaldi honetan, ordea, baxenafatarrez dago *gort(h)e, andre, horia* gurean, ordea, Zuberoako erara: *khorte, andere, hollia...* Sarako kainerrean lapurtar formak ikusiko ditugu: *gorthe, andregaiia...*

A4-Mithil gazte bilho hollia, ofiziale berria/
 ountsa segreki egin deriok anderiari khortia./ Kita
 ezak herria, galdu gabe bizia.

5

–Kitaturen düit herria galdü gabe bizia,
 eta bertan hartüren dizüt Españolatko bidia:
 zure alhabak haziren dizü ene lehen frutia.

Xahoren eredua eta Sarakoa bat datoz ia hitzez hitz. Eredue bietan ofizialearen amak haziko du umea. Hemengo aldaera honetan, ordea, umearen amak, hots, Musde Urrutiaren alabak haziko duela umea dio. *Bertan harturen dut* esapidea berria da Azkueren kainerrean. *Bertan* delakoak “orain berean” edo “momentuan” hartuko duela Española bidea. Interesgarria da jakitea nori zuzendua dagoen ahapaldia: Musde Urrutiari. Era horretara hobe ki ulertzen da hurrengo ahapaldia ere. *Lehen frutia* segmentua hiru eredutan errepikatzen da: A. Donostiarenean, Xahorenean eta honetan.

Herria kitatu segmentua edo izen-aditzak –nahiago bada kolokazioa–, bestetan ere ikusten da. Bi eratara *kitatu* liteke *herria*. Maiteganik aldentzeko, guri dagokigun kantan bezalaxe, edo maiteagana hurbiltzeko. Bigarren ereduak da Xahoren kantutegiko 72 zenbakia, “Agur izar berria”: *1-Agour izar berria/ Iguzki eder eghia/ Zure gatik kita niro*³⁸/*Bizi naizen herria./ Zurekilan egoitiagatik/ Izar charmagarria.*

6

Españialatko bidia ala bide lüzia!
 Bide gibelialat so’egin eta hasperena üsia:
 eia nuiz entzünen nian bi balaren hüstia.

Ahapaldi interesgarria da honako hau alderdi askotatik. Lehen bertsoleerok “Ber(e)terretxeren khantorearen” antz handia du. Oroit gaitezen bigarren ahapaldiaz: “*Andozeko ibarra/ ala ibar lüzia!/ Hiruretan ebaki zaitan/ armarik gabe bihotza*”. Oraingo ahapaldi honetan ere formula bera errepikatzen da: *X-ko Y-a ala Y lüzia*. Ez dugu ahaztu behar egitura indartsu hori Zuberoako leku beretsu-koak direla Larrañe ingurukoak, hots, Basabürükoak. *Bide gibelialat so’egin eta hasperena usia* beste amodiozko kantu batzuetan ere ikusten dugu. “Xorittua, nurat hua?” kantaren bigarren ahapaldia

gogora ekarriko dugu: *San-Josefen ermita desertian gora da;/ Española! juaitian han da ene phausada;/ Guibelilat so'gin eta hasperena ardiura!*³⁹. Batean *bide gibelilat* dena bestean *gibelilat* dugu; batean *hasperena usia* dena bestean *hasperena ardiura* da. Eta dudarik gabe *ardiura* eta *üsü* sinonimoak dira, bete-betean. Esan beharrik ez dago Xahoren hirugarrena eta gure seigarren hau ia hitzez hitz berdina direla. Are gehiago Xahorenean *ardiura* hitzak hautsi egiten du gure ahapaldi honetan *usia* hitzarekin dagoen hoskidetasuna. Beste aldaera polit bat, esaterako, Xahorenean *nuntik* dena gurean *nouiz* da, biak berdin zoragarri, gure grafia gaurkotuan: *nuntik/nouiz*.

Espainiarako bidea Larrainetik bortuak igoz egiten da. Larrainetik Saraitzuko haranera sartzen da. San Josefen ermita ordu eta erdira omen dago⁴⁰.

7

Musde Ürrütia pharkatü, zü bazütüt ofentsatü.
Nik zuri beno lehentxiago zük eni egin afruntü:
zorrak zorra phakha eta orai kito gütüzü.

Sarako kaierrean bezalatsu dator hemen ere. Sarako kaierreko bosgarrenaren eta hemengoaren artean badaude aldaera interesgarriak. Bestela esan, Sarako kaierrekoak hemengo osatzen du. Zein da Musde Urruti(a)k egin duen afruntua? Gure ofizialaren arreba engainatu berak Urrutiaren alaba engainatu duen bezalaxe. Bada, bestalde, beste kontu interesgarri bat. Musde Urruti(a) pertsonaizena agertzen da. Kontu ezaguna da amodiozko kantuetan ez dela, gehienetan, pertsona-izenik deitura eta guzti agertzen. Balada historikoetan pertsonen izen-deiturak errazago aipatzen dira, jakina. Balada historikoetan Musde Urruti(a) edo Jaun Urruti(a) bi baladatan behintzat agertzen da⁴¹. Balada biak Zuberoakoak dira, gainera⁴².

Ahapaldietan agertzen den tratamentua dela eta hona hitz bi. Neskatilaren aitak mutil ofizialeari egindako tratamentua beti da hikakoa. Mutilak, aldiz, beti darabil zukakoa neskatilaren aitari zein neskatilari zuzentzeko. Mutilak, bakarrean, bere buruaz ari denean ere hika egiten du, euskal tradizio zaharrari jarraiki : *6-!.../ eia nuiiz entzumen nian bi balaren hüstia*. Tratamendu hau beratu da “Ama-alabak” kantan ikusi duguna.

AZKEN HITZA EDO ONDORIOA

Kanta bakar baten edo biren aldaerak ekarri ditugu lantto honetara? Zehatzago esanda, kanta bi ote daude “Ama-alabak”, batetik, eta “Muthil gazte bilho hollia”⁴³, bestetik? Azalari gagozkionez, lehen aldaerak eta hirugarren-laugarren eta seigarrenak ez dute hitz bat bera ere komunean. Bigarrenak, ordea, lehenaren eta gainerako guztien aldaeren ahapaldiak ditu hitzez hitz, bi eta hiru, hain zuzen.

Mamiari gagozkionez, lehen ereduak eta hirugarren-laugarren eta seigarrenak badute bateratasun bat: neskatila gazte bat haurdun dago eta neskatilaren maite-laguna ofiziala edo aitorensemea da. Mamiaren esparruan, ordea, bateratasun eza ikusten dugu bi eredu balizkoen artean. Halaxe da, “Ama-alabak” eta “Muthil gaztea bilhoa holli” kanta guztien artean desberdintasun handiak daude. Lehen ereduan, “Ama-alabak” deiturikoan, neskatila bat da amodioetan aitoren seme batekin, hau da, gizarte maila altuagoko batekin. Amak, orduan, maila bajuagoko batengana maitemintzeko diotso. Bigarren ereduan, “Muthil gaztea bilhoa holli” horretan, norbait izatekotan maila bajuagokoa mutila da, neskatila aitorenseme baten alaba delako, Musde Urrutiarena, hain zuzen.

Berdin gertatzen da Lapurdiko Senpereko ereduarekin. *Xorittua norat hua* horretako lehen hiru ahapaldiei beste bat erantsi zaio. Kanta desberdinak izanik badute bateratasun handia gaian zein neurrian. Kanta desberdinak joste hori, kontaminazio delakoa, guk jarri ditugun eredueta argi ikusten da. Artikulu honetan, beraz, hiru kanta ikusten ditugu *Ama-alabak* batetik, *Xorittua nuat hua* bestetik eta *Musde Urrutiarena* azkenik. Azkueren eskuidatzitikoa, *Muthil gazte bilho hollia* delakoa, oso osoan kontaminaziorik gabekoa dela iruditzen zaigu.

Badago alderdi interesgarri bat. Kanta batek, bere osoan egon arren, beti izango ditu segmentu, esaldi eta are ahapaldi osorainokoa beste kanta batzuekin komunean. Alderdi interesgarri hau erakusteko iruzkindu dugu Azkueren eredu hainbat kantuekin.

Kantuaren gertaera edo motibo batzuk XVIII mendeko kantu askotan agertzen dira. Umea egitea, maiteminarekin maiteminez neskaita mutilaren zain egotea eta abar. Motiboak ez ezik kantu-segmentu eta esaldi osoak ere XVIII mendeko lirikan kantu batean eta bestean ikusten ditugu. Gure kasu honetan, ordea, motibo berri bat ikusten dugu: mutilak, ofiziale gazteak, alde egin beharra aitoren seme baten bildurrez. Eredu bitan agertzen den aitoren semearen izen-deiturak bat datoz: Musde Urrutia.

Kontu hauek guztiak elkar jorik ondorio bat aterako nuke. Urrutia jauna edo bestela esan jaun Urrutia, pertsonaia ardatz harturik Zuberoan balada bat baino gehiago izan behar zuten garai zaharretan. Balada horietatik bi behintzat balada bezala etorri dira, eta hirugarren bat, XVIII mendean, korronte estilistiko eraginez itxuraldaturik eta berr moldaturik, amodiozko kantu bihurtuko zen. Hona aldatu ditugun sei amodiozko kantuetan ikusi ditugu balada horren gertaerak. Amodiozko kantu horren sorburua Zuberoa izan bazen ere, Baxenafar-

roan eta are Lapurdin ere ezagutuko zen. Gorago ikusi dugunez, gure artikulu honetara Sarako kaierreko bat zein Senpereko bat aldatu ditugu. Ezagutzen ditugun amodiozko kantu horren bost aldaerok lan honetan ondo transkribitzea izan da gure asmo nagusia.

Hizkuntzari gagozkiola, ez ote dago sorburuko arrastorik? Sara zein Senpereko amodiozko kantuetan ez ote dago Zuberoako euskararen oihartzunik? Baietz uste dugu, baina alor hori zehatz aztertzea beste lan baterako gaia litzateke.

OHARRAK

¹ *Zazpiak Bat. Eskualdun Kantuak* [Buenos Aires, 1900] S. Sescosse eta J. Mendiague-ren hitzaurrea.

² Patri Urkizuren *Bertsolaritzaren Historia/Lapurdin, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I, anonimokoak*, 408 or. liburuan ere aurkitzen da. *Zazpiak bat. Eskualdun kantuar* liburuan 133 orrialdean dator gure kanta.

³ Patri Urkizuren edizioan *Baino baizik ez izan eta hura muthiko gaztekin* dator.

⁴ Beste era batera idatziko bagenu *behartu* (P. Urkizuk bezala eta J. Mendiaguek bezala) nekez ulertuko litzateke.

⁵ *Protimio* sarieran edo hasieran dagoen *aterakizuna* edo moraleja da. Azkenean badator, *epitimio* bezala ezagutzen da. Apologo eta (animalia-)alegiek, kontu jakina denez, batez ere azkenean daramate. Baina aukera guztiak eman daitezke. Hasieran bakarrik edo bukaeran bakarrik edo bietan: hasiera-bukaeratan.

⁶ Hizkuntzaren aldetik badira hainbat kontu. Amak alabari, laugarren ahapaldian, diotson *ehut* delakoa, hobeto ulertzeko, *ez hut* jarri dugu. Baxenafarroan *haut*, nor-nork adizkia, *hut* bihurtzen da, kontu ezaguna denez.

⁷ Barandiaran, Jose Migel: "Amodiozko kantak" in *Anuario de Eusko-Folklore*, tomo 30, 1981, 153-182 or. Gure alea 167 orrialdean dago. Don Jose Migelek erbestealdian, Saran, zegoela kopiatu zuen kaier bat eman zuen argitara.

⁸ Jatorrizkoan *Amat*.

⁹ *Musde* edo bere bariantea *murde* batez ere Baxenafarroa eta Zuberoakoa da. Zuberoako tradizioan, dudarik gabe, askozaz gehiagotan dokumentatzen da. Ikus adibide gehienak *Orotariko Euskal Hiztegia*.

¹⁰ Kantu honen beste transkripzio bat ikusi nahi duenak jo beza Patri Urkizuren *Agosti Chahoren kantutegia 1844-1845*, Susa, 2006, 224 or. Guk oraingo lantto honetan ez dugu jarriko jatorrizko eskuidatziaren argazkia. Gerora egingo dugun lan hornituago batean joango dira hizkuntza xehetasunak. Gure transkripzioa eta Patri Urkizurena, begi-bistakoa denez, ez datoz bat.

¹¹ J. A. Chaho: “Pot-pourri” in *Ariel*, 1845, 30 de novembre, nº 61. Aldizkarian ere eman zuen kanta honen berri. Idazlea *Chat botté* ezizenaren azpian ezkututzen den arren Xaho bera dela deritzagu. Hona hitzez hitz:

Mlle Jacops est una Muette adorable: ses gestes si naturels et significatifs, se physionomie aussi mobile qu’expressive nous ont prouvé qu’elle connaît l’art de rendre le silence éloquent. À voir son costume, nous avons pensé aux vers du barde montagnard:

Mendian zoinen eder

Epher zango gorri.

Combien est jolie sur la montagne

La perdrix aux pieds rouges.

¹² Kantu hau, besteak beste direla, nola ez, *Eperra* diskoko azkena da. *Eperra* diskoa Dominika eta Niko Etxart aita-semeak eta Robert Larrandaburuk kantatutako kantez osatua dago.

¹³ Nola da *Arristiri* edo *arrastiri*? Eskuidatzian argi baino argiago dator: *arristiri*. Ez dago, bestalde, dudarik: hitz zaharra *arrastiri* da eta horretarik dator atzeranzko asimilazioz *arristiri*. Zuberoako euskararen, gainera, dokumentaturik dago *arristiri*... Era berean, nola da *zerena* edo *serena*? Eskuidatzian ez dago dudarik txikiena: *zerena*. Haritschelharrek ere Etxahunen khantoreak transkribitzeko orduan Zuberoako tradizioari jarraiki zitzaion eta *zerena* transkribatu zuen.

¹⁴ Xahoren eskuidatzian *zerena* hitza polisemikoa ote da? Baietz uste dugu. Gaueko “serenoa” ez ezik “ondina” edo “itsasneskaren” esangura ere badu. *Voyage en Navarre pendant l’insurrection des basques (1830-1835)*, Bayonne, P. Lespès, Éditeur, 1865 liburuan honelaxe dator 41 or.: *Hourandian, umen bada/ Kantazale eder bat,/ Zerena deitzen-den-bat./ Itchassoan, inganaten./ Ditu hak passaiarak:/ Hala nola, ni maitenak.* Itzulpena honela egiten du: Il existe dans l’Océan/ Un beau chanteur/ Que l’on appelle syrène./ C’est elle qui, sur les mers./ Enchante et séduit les passagers./ Comme ma bien-aimée moi. J. Sarrionandiaren *Marinela*, Susa 1985, itzulpen-liburuan ere badator 61 orrialdean kantaren transkripzioa. Berak transkribatua jatorrizkotik edo beste nonbaitetik hartua?

¹⁵ Xahoren kantutegiko 52 zenbakia daraman kanta transkribatuko dut –hitzez hitz eta inolako aldaketarik gabe– esana-

ren argigarri: 1–*Gaiāz nengouelarik/ Lo eghinik ohian/ Igarāiten benian/ Ene phensamentian/ Zoure et’ene amourioua/ oraī zela florian.* 2– *Zoure et’ene amouriouaz/ Ielossi da mundia/ Nik eztizut acholik/ Akort baniz zoureki/ Ardura ardura jin nintezu/ Gaāaren ulhunagati/c.* 3–*Etzait uduri badela/ Mundian zu bezañ eigerrik/ Ez zelian izarrrik/ Maitia zure parerrik/ Zoure beghiek ezarten die/ Eniak IluSiturik.* Bitan bereizi ditugu jatorrizkoa *Enephensamentian* lehen ahapaldikoa *Ene phensamentian* egin dugu eta *ardurajin* bigarren ahapaldikoa *ardura jin* egin dugu. Beste aukera bat ematen du eskuidatziak *ülhünagati/ülhünagatic* eta azken ahapaldiko *ezarten tiel/ ezarten dutie*.

¹⁶ Transkribatzaileak *lantsia* jarri du hasieran, baina, gero, zuzendurik: *antsia*.

¹⁷ *Gure Herria* 1929, 9 année, Mai-Juin 3 alea. Jakina denez, musika gehigarri hauetan pentagrama eta guzti agertzen da. Kantaren oinean ohar txiki hau dakar biltzaileak: Cette chanson (d’un rythme si curieux) m’a été chantée, en Août 1923, par Pello Erramuzpe de Banka (Aldudes). Il la tenait de son père.

¹⁸ Nola ote da *ik(h)asiko dut edo askiko dut*? Bi erak zilegi dira. Aita Donostiak hala entzun ote zuen? *Askiko dut* egitura *nahikoa izango dut* edo horrelako zerbait da...

¹⁹ Aita Donostiak *luzea* transkribatu zuen baina nahitahiez *luzia* behar du. Era horretara hoskidetasuna sortzen da.

²⁰ Bai Sarako bersioan bai A. Donostirenean bietan idazten da bereiz, Iparraldeko tradizio zaharrari jarraiki: *gazte(t)to danik*. Tradizio honen arauera *ama gana(t)*, *ama ganik* eta abar.

²¹ Irudiaren beste alderdi interesgarri bat ondoan daraman aposizio explikatibo dugu: *mendi gainean sortia* edo *airean joaile propia*...

²² Bestela esan: gainerako ereduetan beti agertzen da “ofiziale” hitza. Ofiziale hau izan daiteke, kontu jakina denez, ofizio batean aritzen dena edo soldadua. Harrigarria da beti *eper zango gorria* sinboloa agertzen den ahapaldian “k(h)orte/gorte” hitza agertzen da. Eta beti egiten die *eper zango gorriak* beste askori (eta askotan *gazte(t)to danik*) kortea: “Agur, oi izar maitea”, 8-Oi, *eper zango gorria, airean joaile propia!*/ *Ez duzuia bada pena ene hola ikustia?/ Othoi, othoi har nezazu, utzirikan bertziak!*

²³ Bankan, Alduden, bilduak *kitatuko* eta *adituko* erabiltzen ditu. Sarakoak *kitaturen* eta *ikhasiren*. Gure Bankako aldaeran hitz bat bakarrik aldatu dugu jatorrizkotik: *Kitazaki* jarri beharrean *kitazak* egin dugu, hobe beharrez. Xahorenean eta Azkue-renean ekialdeko erara datoz *galdüren*, *kitatiüren*, *entzinen*... A. Donostiaren bilketetan fidagarriagoa da musika hitzak baino. Hemen zerbait zuzentzekotan *luzea* hitza *luzia* delakora ekarriko genuke, fonetismoak behar bezala eginez.

²⁴ Jatorrizkoan *Hartzak*, aldaera gurea da.

²⁵ Jatorrizko eskuidatzian *zenena* dator. Aldaera gurea da, beraz.

²⁶ Hemen eskerrak eman beharrea aurkitzen naiz hain ondo hartzen nauten Euskaltzaindiko liburuzain guztiei, Pruden Gartziairi, Kristina Aranari, Nerea Altunari eta batez ere Azkueren kantutegiarekin hainbeste laguntzen didan Josune Olabarri.

²⁷ Sasiuste argal batek baino indar gehiago du baieztapen honek. Huts egiteko arriskurik gabe esango nuke Larrainekoa dela. Gure kanta baino lehenago transkribatzaileak Larraineko “Albadak” transkribatu zituen. Nola transkribatu albaden herrikoa ez izanik? Luis Ligeix larraindarrak ere antzeko ahapaldi bat egin zuen bere eztaikantu batean. Larraindarrak Zuberutik Saraitzura ihes egiteko –berek esaten zuten moduan *Frantzjati Españolat*– San Josefen ermitan zehar pasatzen ziren, Aita Jorge Riezukoak dioskunez. Kantu batek Larraingo San Josef ermita aipatzen du “Xoritua nurat hua”.

²⁸ Ezusterik handienetako bat *eder* hitzak, lehen eta laugarren ahapaldietan, ematen diguna da. Ez da, gure ustearen kontra, *eijer* forma palatalizatua agertzen. Berdin gertatzen da Xahoren kantutegiko Zuberoko beste kanta batzuetan.

Zuberoko euskararen transkripzioaren arazoetako bat dardarkariak (*r/R* oposizioaz ari gara) ematen dutena da. Gure eskuidatzian denak datoz gainerako euskararen bezalaxe: *herri*, *gorri*, *ederra*, *zorra*, *larra* (artikuluarekin *larria*)... Atzerantzko asimilazioetan *mut(h)il* hitza ez dugu Xahorenean bezala *mouthil* ikusi *mithil* baizik. Atzerantzko asimilazio ezaguna da (Ikus bedi L. Mitxelenaen *Fonética histórica vasca* liburuan 3. atala “Labialización y deslabialización”) *histu* hitza –ziztu, txistu adierazteko– *hüstü* egitea (artikuluarekin *hüstia*). Palatalizazioetan interesgarriena *hori* hitza *holli* egitea... Zuberoko beste zenbait kantatan *blonda* ere agertzen da, frantses hitza zuzen zuzenean.

²⁹ Amodiozko kantuetan sinekdoke gehiago ere agertu ohi dira, dudarik gabe. *Pars pro toto* tankera horretakoa genuke esaterako “Mundian den ederrena” horretako *hegala* hitzak adierazten duena: *3-Badakizü aspaldi banabilala/ urzo baten onduan oihania!;/ orai etsitzen dizüt ezin dirodala;/ Ezin ikhusten beitiüt, oi! haren hegala*. “Hegal” hitzak indar berezia du urzua hegatzian, indar berezia duen bezalaxe begiak pertsona batengan.

³⁰ Ohart bedi, aurreko oharrean jarri dugun bezala, zein berdinak diren esaldiaren egitura sintaktikoan zein erabiltzen duten tropoan, bi esaldi hauek: *ezin ikusten beitiüt, oi! haren hegala/ Aspaldian ez dut ikusi neure maitearen begia*.

Begia singularrean agertu ohi denean sinekdoke garbi bat ikusten dugu, askotan. Adibideak metaka pilatu litezke. Guk hona gutxi batzuk baino ez ditugu ekarriko. “Nik badut maiteño bat” horretan hona adibidea: “*1-Nik badut maiteño bat, oi bona nolako?/ Ez da ttipi ez handi, bai bien arteko;/ Begia pollita du, dena amorio:/ Bihotzian sarhu zaut, ez baitzaut jal-giko*”. Edo “Uso xuria, errazu”-ko bigarren ahapaldia: “*2-Izar haren begia, hain da xarmagarria,/ Koloreak xuri-gorri perfektionez bethia;/ Eria-re senda liro haren begitharteak*”. Badago, bestalde, *nigarra begian* egitura amodiozko kantuetan eta gainerakoetan sarri xamar dokumentatzen dena. Gure eredueta, Xahoren laugarrenean *...!..! Hasperena bihotzean/ eta nigarra beghian* dator. Bestalde, “Iruten ari nuzu” kantako adibidea: “*1-Iruten ari nuzu kilua gerrian/ ardura dudalarik nigarra begian*”. Edo bereiz “Mendian zoin den eder” kantan, esaterako, “*4-!..!..! begian bazinuke behiko nigarra*”. Era berean, eta ia beti singularrari eutsiz, *nigarra begiti* ere ikusten dugu. “Orai banuazu herriti”: “*1-Orai banuazü herriti:/ ardura dizüt nigarra begiti!*”.

Beste alde batera joanik, *begit(h)arte* hitza lehen zentzuan begien artea edo begi ingurua adierazi behar zuen, eta, gerora, sinekdoke garbi bat eginez *aurpegi*. Ez ote da antzeko zerbaite gertatzen *aurpegi* edo bere aldaera zaharra den *aurtegi* hitzaren? Edo *mosu/musu* hitzekin? Lehen adieretako batean ahoaren ingurua adierazi behar zuten, eta, gerora, besteak beste direla *aurpegia* bera.

Pluralean agertzen denean egiazko begiez ari ohi da poeta. Eta dudarik ez dago, begiak pluralean askotan agertzen dira XVIII mendeko amodiozko kantuetan. Eman dezagun adibide bat “Kantoreño hauk gure herrian” kantan honela dator bigarren ahapaldian: “*Andereño bat ikusi nuien, igande arratsño batez;/ ixtant berean, ni agradatu haren begi ederrez*”. Eta begiak pluralean daudela ba ote da adibide egokiagorik gure atal honetako bigarren ahapaldikoa baino: *haren begiek die üdüri izar direla zeliüti*.

³¹ Tankera honetako adibideak ia amodiozko kantu bezainbat eman daitezke. Lehen ahapaldian *izar* sinbolopean agertzen denean maitea munduan ez duela parerik esan ohi da.

³² Hizkuntzaren aldetik ere badira hainbat adizki iruzkingarri. Zukako adizkiak interesgarrienetakoak ditugu. Esaterako, *nikezü* ez da besterik “nuke” zukan baino; *nükezü*, aldiz, *naukezu* litzateke zukan, hots, “izango nauzu”. Badira beste aldetik, kontu gehiago. Goian jarri ditugun adibide pareko biak, “Eguntto batez nindaguelarik” eta gurea, biak daude zukan. Badago beste aldaera bat zukan ez dagoena. Xahoren kantutegiko 50 zenbakiduna “Aldi batez nengoualarik”. Hona

hirugarren ahapaldia: *Oro pollit, oro eiger/ Zirade ene mañtia/ Zure eskutik nik nahi nuke/ Bizi nízano oghia/ Guero bethikoz izan neñte/ Zoure zerbucharía.*

“*Bizi n(a)ízeno/nízano*” agertzen da forma guztietan eta inoiz ere ez *nuzuno* bezalako formarik. Bestela esan, esaldi menperatueta ez da agertzen zukako forma arrunta baino.

³³ Ez ote dago “ogiairen erritualik” esaldi horretan? Bestela esan. Emakumea izan ohi zen baserrietan labesua egin ohi zuena. Emakumearen ardurapean zegoen *erraria*—edo bestela esan *arto-ogiak* egitea—astean behin. Bizi den arte guztian emakumeak berak egindako ogia emango dio bere senarrari.

³⁴ Ezabatzea ez da guztizkoa guk uste eskuidatzia ez zatarztearren. Ezabatze horrek ez ote du, bestalde, beste zerbait adierazten? Kantua buruz dakiela, hain zuzen, berriemaileak? Kantua kaiere batetik kopiatuko balitz nekezago egongo litzateke holako ezabatzerik.

³⁵ Zergatik gertatzen da alderantziz jartze hau? Indar berezi bat emateko galdegaia? *Haren begiek*, modu horretara, indar berezi bat hartzen duela.

³⁶ Xahoren kantutegian 73 zenbakian, “Agour izar berria” kantan eskuidatzian honelaxe dator: *4-Erhaztun badut nik./ Bere ederrez harturik/ Nun ez dudán hura ikosten/ Zure erhian emanik/ Ene bihotzak ez du ukhanen/ sekula dezcan-churik. 5-Erhaztuna baduzu/ Hura bertzeri emozu/ Hura ene erhian emanik Ikhoussiren ezduzu./ Lehen eman dirozunari/ orai ere emozu.*

³⁷ Adibide gehiago ere eman litezke. “Sor lekhua dut Frantziak duen (Amerikanoa)” kantan honelaxe dator laugarren ahapaldian: “*Zorigaitza zen ezin egona ni maitearen aldean:/ hura behar zen bizi hirian, eta ni mendi gainean;/ ethortzen nintzen bai ikusterat bai ahal nuenean:/ urh’erretun bat ederra ere ezarri neion erhian,/ hari behatuz kontsola zedin ni falta ninduenean*”. Eta eraztunaren kontuari beste hestutu bat ematen dion torlojuaren tankerara, seigarren ahapaldian: “*Lxil ixila nintzen agertu izar eder haren gana:/ ginduen elgar hor besarkatu eta eman musu bana:/ ordu berean ohartu nintzen nik erosi erretuna/ jaun gazte horrek zerabilkala bere erhian emana; lantz’ukaldi bat bezala zautan sartu bihotzean barna*”.

³⁸ Jatorrizkoan batera dator: kitaniro. *Kita niro* ez da besterik *kita nezake* baino.

³⁹ J. D. J. Salaberryren *Chants populaires du Pays Basque*, 158 orrialdean. Ia berdintsu baina bi ahapaldi gehiago dituela KKK liburuan, 125 orrialdean. Xahoren kantutegian ere antzera. 86 kantan *Tchorittua* deitutakoan: *2-San Josefén ermitha./ Desertian gora da. Espagnalat jouaiteko/ Handa goure páus-sada/ Guibelerat so’guin eta/ Hasperanak ardura. (goihera).*

Bi aukera daudela adierazten du eskuidatzia: *hasperenak ardiura/ goihera*. Bestela esan *ardiura* hitzaren lekuan *goihera* ere izan daitekeela. Esaldi horretan badago *locutio praesens* bat, hots, aditz bat inplizituki dago: *hasperenak askotan egiten du gora, ateratzen da*.

⁴⁰ Halaxe dio Aita Jorge Riezuk “Xorittua, nurat hua” Kantant: “La ermita de San José, que los suletinos visitan el mes de junio en devota peregrinación, está a poco más de hora y media de Larrau (Larrañe), camino del puerto que une Zuberoa con el valle de Salazar, Nabarra.

⁴¹ Biak ala biak pertsona historiko berbera ote dira? Jean de Jaurgainek bat bakarrik aztertu zuen. Berak ez bide zuen eza gutzen Xahoren kantutegia eta horrexegatik egiten du bakarraren aipamena.

⁴² Urrutiako jaunaz berri gehiago jakin nahi izatera, ikus bedi Jean de Jaurgainek “Quelques légendes poétiques du Pays de Soule” *La tradition au Pays Basque*, Paris 1899, liburuan, 362-368 orrialdeetan. Ohartzekoa da *Urrutiako anderia* edo *Hauzeko anderia* baladarekin hasten duela bere saila Jaurgain ikertzaile zuberotarrak. Bigarren balada Jean Haritschelharren “Baigorriko zenbait kantu” lanean, *Gure Herria*, 1963, Urria, 243-256 or. Balada biak, jakina, Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/Romancero vasco*, Auspoa liburutegia 1998, liburuan datoz.

⁴³ Nola izendatuko dugu kanta hau? “Muthil gaztia bilho horia” kanta ezaguna da. KKK 46 or. agertzen da. Baina lehentxoago esan dugunez, hau beste kanta bat.

Distantziaren distantziatik

BIDEETATIK

Egonarriak erroizten gaitu,
ausardiak haren buruaz beste egin zuelakoan.
Bidez bide
anpuluek kaiera lausotzen dute,
barne-letrak garbitzen.
Biharamunean,
estrata bazterrean
irri
izkiriaturiko berba bustiei so.

Ez baikara hain ahulak.

Bidez bide.

MITXOLETAK ETA GALSOROAK ERNE DITUEN LURRALDETIK

Mesetako mitxoleta artean
ez zaituztet oroituz;
zuekin
lo-zakua partekatzeko
gogorik sentitu gabe,
atzerriko galsoroek
amodioa egin didate,
gau batez.

Kilometroek
zoramena
eta
loa
oparitu dizkidate;
gau batez,
eta
goiztiri batez.

MARRA ETENAREN BIDETIK

Errepideko marra etenak
zerura bidea zirrimarratzen didanean,
eta eguzkiak
alboz zirikatzen nauenean,
esku bakarra bolantean
koruak egiten dizkiot
gustuko abeslariari
eta
azeleragailuaren pedala
zanpatzeko lera gabe,
bidea zabaldu ahala
txalo jotzen didaten
errepide ertzeko
zuhaitz dantzari
keinu egiten diet.
Orduantxe,
zizpuru batez,
ohartzen naiz
egun ona izan dela,
gaurkoa.

LONDON

Bigarren eskuko liburuetakako lerroetan,
Portoveloko metropolian,
topo egin nuen Cleopatrarekin
eta
Pizza begetarianoa jan genuen
Tamesi ibaira begira.

Eguzki-loreen hosto dirdaitsuek,
Shakespeareren antzokian,
itsutu egin ninduten begira-begira
eta
d night, Gogh, Van Gogh
eskerrak azpitiuluak ulertzen genituen...

Harrods-eko te garestiak lurrunduta,
metaleroen tabernan,
T. H. Eliotek bisita egin zidan
eta
Coca Cola Light batekin topa,
arratsaldeko bostetan, puntu-puntuan.

Sohoko saltzaileen London bridge,
pentagrametako ahairean,
zabaltzen ikusi nuen
eta
metroko saxoaren erritmoan
Goth save the queen kantatu nuen hartz artean.

Etorkizunean harrapatuta,
Jack destripatzailea
ahaztu zaidanez...
Itzuliko naiz,
Brixtoneko umezurtzak
emagalduta bortxatzen dueneko
berbak idaztera.



Hitzak

Hitzak kantari
goraka
beheraka.
Hitzak gurgarri
maite
jasarle
jaki
edari...

Hitzek naukate
urduri
eurak
bihotz-gidari
ustegabekoak
bat-batekoak
irrikaren irrikaz
itxaroaren itxaroaz
jausten
zaizkidanak...
Esakun maiteak...
Diz-diz dagite
arrain bizi bezala
eurak
bits igerilari
harremanen hari
metal kirrinkari
ihintz freskagarri.

Hemen nabil
hitz-bila
bizkor eta ehiztari:
hain dira eder!
Poemak
denak
nahi ditu irentsi
guztietaz ehundu
bere jantzi.

Hegaran dihoazela
zurrunbari dihoazela
harrapatzen ditut
garbituz
zehaztuz
egokituz
buztartuz
ezkonduz...

Hitzak...
kristalezko argitasuna
dantzarien bizkortasuna
marfilaren leuntasuna
itsasoaren mugagetasuna
hitzen ugaritasuna...

Hitzak dira sagar
eurak ditut lore.

Nahastatu egiten ditut
saltsagai bailirean.
Inguratu egiten naute
eta nik
edan
irentsi
miazkatu
mamurtu
neuretu
eta askatu
egiten ditut.

Hitzak
nire poemagintzan
zur landu zati
ikatz dizdizari
hondamen hondakin
olatu erregalia
hor egin dute kabia

eurak baitira
denaren
izen emale
gauzen izatearen
iragarle.

HITZAK DANTZAN

Bai, bizia eraikitzea da neketsu!
eraikitzea
fedearen horma jausiekin
fede berria eraikitzea.

Itxaropen zaharraren
hondakinez
itxaropen kantu argia
sortzea.

Gezur ilunaz
eguneroko hitz zikinez
bide berria urratzea.

Metaldu egin gara.
Zaila da benetan
atzoko bakea gogoratzea.
Haurtzarora zauritua gelditu da.

Hitzak ditut
sustrai
hitzak
jakintza-bide
eurak ditut
lehen
eta orain bete.

Bizi-dirdai dagite
hilobi ezkutuan
nahiz lore
sorberrian.
Hitzak
bizipen
sentipen
direnen
gertaeren
taiutzaile
moldatzaile
diren guztien
agerbide
muinik sakonenen
iragarle
bizirik dugunon
komunikabide.
HITZAK...!!!

Ez, hiltzeak ez du irabazirik.
Egunero hiltzen da.
Aldi joana, lehengoa...
ez al da heriotzea?

Maitasuna berreraikitzea
eta argi berria sortzea
horra balioaren lorea.

Bizia da nagusi
helburu eta jatorri.
Ludian bizia eraiki
ahaztuz
galduz
irabaziz
iratzarriz...
barkatuz
baketuz
konorteratuz,
giza eta lur
maitez ernaldu,
ez ernari hondakinak
suminaren antzuz
itoz eta itsuz
betirako galdu!



SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO.
***Herri maitea, Herri dorpea*¹.**

Mendi- eta kultura-jaiak gaur hemen Mendatan. Mendi- eta euskal kultura jaietan, Bitoriano Gandiaga buruko tropelean.

Bitoriano mendira ia-ia egunero joaten jakun. Arin, gazte denboran, “eskailera-mailak bana baino bana eta launa ere errazago igotzen zituenean”²; erne beti: “milla kolorezko argien ardoek / zorabiatuta”³. “Errekaduak egitera bidaltzen zutenean ere, errekadua zuen eginkizun, baina zertzatigatik ez zuen gogoratzen dendan zer zen eskatu behar zuena? Dendarako bideak berak distraitzen zuelako”.

Halan ta be, mendi-ibilaldietan, Bitoriano, lehen-lehenik, giza lorratzetzi usainka ibiltzen zan⁴.

—Mendian zer egiten duzu gehien —galdetu eutsoen, eta harek: —Entzun. —Entzun? Txorien torrotzioak?... —Beno, bai, baina lehen-lehenik ez, gizakien istorioak baizik.

Gaur bertan hemen —Mendatan— zapaldu ditugun xendrak eurak, hamabi mila urtez, beste gizaki askok (Bitoriano Gandiaga tarte) zabaldu, zapaldu eta miretsi dabez: ez ete dogu guk horreen presentzia, gure artean, nabaritu? Mendizaleok, ez gaitezkan *dorpeak* izan. Orbelauan delako ‘mendi artean galdutako baserri zaharkitu’ horretan, Bitoriano Gandiaga jaiatu zan,

1928. urtean; eta goratxoan, Maruelezan, orain dala 3.000 urte, Euskal Herrikoek gotorleku bat eraiki eban, lasai antzean bizi ahal izateko. Lur horrek ez bakarrik sakon markau, poeta egin eban Bitoriano: “BEGIA eskutu zion urari / ta haizeari / bultza ziezaiola ta erabili. / Mihia eskutu zion suari”⁵. “Mendiak ederrak dira”, idatzi euskun Bitoriano Gandiagak, “are ederragoak gizakiek maite (landu, izerditu...) izan dituztelako”.

Euskaldunok, mendia eta Herria maitagarriak ditugu, baina, askotan, mendi edota euskal gauzetan nahiko dorpeak izaten gara. Begiratu Bitoriano zelan ebilen mendi-ibilaldietan:

Bide zaharrok
noizbaiteko artegi
eta esparru hondatuok
astailarrak, oteak
eta txarakak jantzi
harrobi aspaldikoak
hemen, edozein muino
ta mendi-maldatoak
babesgune txotan,
bertan behera eta ahazturik,
hauexek ditut nik
lehengo gizaldi apalen
lekuko maitagarri
eta hurbil. Euren
esankizuntxoak ditut
entzunkizun eta neure
esjakinean haien
noizbaiteko bizialdiz
egiten dut amets
eta badakusat jende
saiatuz, jende
sufrituz, jenez eta jantziz
eta atsedenez urri
bizi zen jende sentimendu handikoz
arduraz zaindurik
artalde kontatuz
sendatuz, eraitsiz
harrobietako haitz-zirristuetan
zuzeko ziriak tinkatuz
harri-mokorrak arbastuz
argitik argira lanean
bustita sari edo izerditan blai eta zikin
ipuin munduan murgil
jaiegunetako atsedendaldiz laburra
eta beste gozamen asko gabe

bide zaharrotan zehar
esparru ingurutan
harrobien inguru
harri potortsuetan.⁶

Mendia eta euskal kultura. Honeetan biotan, B. Gandiaga lehenengoetariko dogu. Areago, mendiaz eta euskal kulturaz, Bitoriano Gandiaga, zentzurik onenean, harrotxoa. “Nire kantua eskainiko nieke Jainkoari, Izadiari eta Euskal Herriari. Dударik gabe nire bizikizunak horiek dira eta *danetan daukat zer esanik eta danentzat daukat zer esanik*”⁷. Bapo.

Gu geu, oster, honeetan biotan dorpe samarrak. Bitoriano baekian, ondo jakin be, politika mailan, Euskal Herrikoak ez garala ondo tratatuak izan, baina politikari uko egin barik, euskal kulturari emon eutsan lehentasuna, euskerari batez be: “Hemen euskaldun izatea bezalako gudarik ez dago. Hemen euskaraz irakurri eta euskaraz idaztea bezalako indar politikorik ez dago. Hemen ez dago euskara adinako desafiorik inperio zurrapariaren aurka. Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itzarobiderik”⁸.

Bitoriano baekian, ondo jakin be, Euskal Herriko kultura eta politika egoera latzean kanpotar askok errua daukiena. Berak, haatik, bere buruari, lehen-lehenik, eta euskaldun guztioi eskatzen euskun erantzukizuna: “Gure burua katetik behar dugunak askatu geu gara, geu; ala inor ez”⁹.

Baekian guk geuk ahaztu samar daukagun oinarritzko beste gauza bat: euskararen aldeko apustuan, etxeokak, aita-amak batez be, direla (zariela) piezarik garrantzitsuenak (eta gu geu, dirudienaz, enterau barik edo).

Kanpotar eta gure Herriko askoren eraginagaitik, Bitoriano euskera galtzeko zorian izan genduan, eta, galera hori dalata, beraren lepotiko barreak ekiditeko, euskera bazterean ixtea pentsau eban. Arrisku horretatik Larrostako Anastasiak askatu eban: “Halako batean amak mahaira deitu ninduen eta txokolate egin berri-berria eta ogi errea ateratu zituen. Txokolate haren usainak adiskidetu zukeen txakur amorratua ere. Ama hasi zen hizketan: ‘Bitoriano, hurrengoan ez dozu esan behar izeko-

ri ikusiztat, Don Anjeleri ikusiztat, Ertzilgo Paskuali ikusiztat eta holakorik. Ikusi dot, esan behar dozu. Don Kruz ikusi dot, Teile-tzaurreko Maria ikusi dot eta hola beti'. Sukaldeko jardun hartan bertan esan zidan beste hau ere. 'Ia gu zahartu gara erdara ikasteko, halan da ze, zeuk ikasi beharko dozu euskaraz'¹⁰. Eta halaxe jarraitzen dau Bitorianok: "Han, Bizkaiko Mendatan, idazten ez zekien gure ama Anastasiak berebiziko inportantzia ematen zion hizkuntzari. Pertsonak berbalduen eder eta ez-ederretan bereizten zituen, hain zen inportantea harentzat pertsonen berba egiteko modua! Eta beste bereizkuntza gutxi egiten zuen pertsonen artean. Pertsonen berba egiteko era zen harentzat aintzakotzat hartze-koena. Berbalduen ederra zen harentzat: Don Anjel, Arratzuko parrokoa, eta Forutik, Larreatik, Eubatik eta etortzen zen fraide bat edo beste. Iluntzarbako Plootinori, Akertxu Arralakoari, Tomasa Ibarekoari eta ere entzutea gustatzen zitaion. Harengandik, Seminarioan —1940-45 bitartean— erabat bal-dartu genuen euskara berregokitzeko hartu nuen aholku erabakiorra"¹¹. Eta Euskal Herriko baseritar askori euskera txarto egiten dabela pentsarazo ohi deutsegu dorpe-dorpeok. Maitagarria, bai, euskal hizkuntza, gu geu, ostera, euskarari datzekiozan egite-koetan dorpeak, oso dorpeak gaituzue.

Bada horixe dozue gaur aurkezten dogun liburuaren edukia. Joxe Azurmendik azpimarratzen deusku Bitoriano Gandiagak, idazle handia bada, Orbelaungo base-rrian ikasitakoa inoiz ahaztu ez ebalako dala handia. Alderantziz: Bitorianok base-rriko hitzak salmo bihurtu ebazan eta Orbelaungo zirrikituetan Jose aitak gorde ebazan bertsopaperak goi mailako olerki eder, eta halanxe kultura eta politika gauza askotan: "Euskera salbatuz —aholkatzen deusku—, euskera baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan"¹².

Besterik ez. Ez da gitxi. Ez gaitezkan dorpeak izan eta jarrai dagoiun Bitoriano-ri ibilaldi horretan. Ez dogu mendatar hori gidari txarra eta!

Eskerrik asko.

Sebastian Gartzia Trujillo
Mendata, 07-09-02

¹ Mendatan urtero egiten da mendi-ibilaldi bat Bitoriano Gandiagaren oroimenez. Aurten 2007ko irailaren 2an izan zan, eta horregaz bate-ra kultur ekitaldi bat egin zan, Sebask Gandiagari buruz prestatutako liburu-a aurkeztuz. Ekitaldiaren gidari Adolfo Arejitzak egin eban, eta ostean liburuaren egileak eta Gandiagaren idazle-ibilbi-dean haren ondo-ondoan izandako lagunak parte hartu eban. Hurrengo testu biok han irakurritakoak dira.

² GANDIAGA, B., *DGA*, 31. or.

³ GANDIAGA, B., "TA AURREAN", *ABG*, 31. or.

⁴ GANDIAGA, B., *DGA*, 94. or.

⁵ GANDIAGA, B., *UBM*, 20. or.

⁶ GANDIAGA, B., *DGA*, 85-86. eta 94. or.

⁷ GANDIAGA, B., Arantzazun, 91.08.17an.

⁸ GANDIAGA, B., *DGA*, 113. or.

⁹ GANDIAGA, B., *HGB*, 78. or.

¹⁰ GANDIAGA, B., "Ni neu euskal idazleetako bat", 102-103. or.

¹¹ GANDIAGA, B., "Nere obratz", o. a., 207-208. or.

¹² GANDIAGA, B., "Ni neu euskal idazleetako bat", 209. or.

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO. *Herri maitea, Herri dorpea.*

Eraman handikorik bada, horixe da denbora. Denborak, bizitzako milaka ertz zorrotz leuntzen ditu. Eta gauza bera egiten dute baita pertsonen arteko harremanetan ere. Baina nik Bitoriano Gandiagarekin izan nuen harremanaren kasuan ez da horrelakorik gertatzen. Oraindik ere hunkitu egiten naiz, duela sei urte irratan bere heriotzaren berri izan nuenean hunkitu nintzen bezalaxe. Bere laguntasuna oso hurbil dago oraindik.

Bitoriano Gandiaga ezagutzeko aukera izanagatik dudak zortea hiru alderditan jaso nahiko nuke:

—Batetik, Madrilén bizi nintzanean Gandiagak bi uda igaro zituen hirian. Eta harro sentitzen naiz paisaia haietan bere gidaria izan nintzelako.

Zapore ezberdinetako kaleetan zehar ibiltzea, Madrilgo mendizerra bisitatzea, metroa, antzokia... Gidari eta laguntzaile xumea izan nintzen.

Berak idazten zuen bitartean, nik marraztu egiten nuen eta horrela jaino zen *Uda batez Madrilén*. Amets bat izan nuen behin. Bitorianok Bilboko itsasadarra ikusi eta hari buruz idatzi zuela amestu nuen. Baina ez zen sekula egia bihurtu. Liburu polita izan zitekeen.

—Lurrari buruz gehien erakutsi didan persona izan zela ere jaso nahi nuke zuen aurrean. Bere begirada utzi zidan lurra beste modu batean ikusten ikasteko: usainak, zokoak, bidezidorrak, kobazuloak, dolmenak, antzinako bideak eta nik preziazten ez nekien bizitzaz beteta zeuden hostotzak. Azken batean, lurra bere poeta begiekin ikusten eta balioesten irakatsi zidan.

—Bukatzeko esan dezaket, beste persona askok bezala, bere laguntasunaz disfrutatzeko zortea izan nuela. Bere laguntasuna bizi izan nuela esateko aukera dudala.

Hitz hauetako bakoitza milaka anekdota eta oroitzapen ederrek osatzen dute. Baina horien artean garrantzitsuena litzateke persona handi bat ezagutu eta harekin lagun bezala bizitzeko aukera paregabea izan nuela. Zortea izan nuela, beste persona askok bezalaxe, bere laguntasunaz gozatzeko.

Eskerrik asko zuen arretagatik

Xabier Egaña
Mendatan, 2007ko irailaren 2an.

LIBURUAK



ASEL LUZARRAGA. *Mozorroaren xarma*. Erein, 2007.

Asel Luzarragak, aldizkari honetan ezagun dogun Bermeoko idazleak, bere hirugarren lan luzea dan *Mozorroaren xarma* (Erein) kaleratu dau. Bertan nagusi doguz exotismoa eta ustelkeria alkarlotzen dabezan gaiak. Era berean, esan geinke *Karonte* (2005) elebarrian hasitako antzeko bideetara jo dauala oraingo liburu barrian. Hatan nabarmendu ziran egilearen zaletasuna Asiako kulturagazko, Japoniagazko hain zuzen, bai eta gaurko teknologia digitalak sortarazoten deutzazan ardurea eta miresmena be; dan-dana erotismo ukutuaz apaindua. Agiri-agirikoa da manga kulturearen eragina Aselen literaturan. Bada, *Mozorroaren xarma* nobela barrian ez dabil ezaugarri horreetatik oso urrun. Izan be, hain modan dagozan zibernauta horreetako baten istorio xelebrea dakarsku. Zigor dogu zibernauta hori, benetan mutil bitxia, eta une batez, zibernauta mozorroa kenduta abenturara joko dau, nora eta Thailandiara. Beraz, mozorroaren ideia da egileak liburuaren luze-zabalean darabilan ardatza. Beraren esanetan danok bizi ei gara mozorro baten atzean, eta aldi berean mozorroa da bizirauten laguntzen deuskun tresnea, geure buruagaz erosoago sentitako aukerea emoten deuskuna, guzurrezkoa dala jakin arren. Baina mozorroa gure benetako izaera kanporatzeko oztopoa be bada aldi berean, geure burua onartzen ez dogulako seinale. Egileak ideia horri jarraitu deuto liburuan azaltzen diran istorio ezbardinak garatzeko. Dana dala, aurreratu lez, Zigoren istorioa liburu nagusia dala esan geinke. Berak inork baino hobeto adierazoten dau mozorroaren garrantzia. Zigor zibernauta amorratua dogu, ez da ohiko gaztea. Bere moduko gazteak parrandan dabilzan bitartean, berak mundu txiki, pribatu eta ezkutu dauka bere gelako lau homnen artean. Pantailek, tekladuek eta prozesagailuek osotzen dabe bere lagunartea, bere unibertsoa. Interneten bidez, baina, Thailandiako neska eder bat ezagutuko dau, laguntzinoa eskatuko deusana bera. Barruko mundu hori lagata, Zigorrek neskeagaz alkartzan

joko dau bertaraino, jakin barik neska horrek benetan zer asmo ezkututzen dauan, ustelkeria kasua tarteko. Thailandiako bidaiari, era berean, liburuko enparauko protagonistak azalduko dira: ohikoa be ez dan Dasha errusiar neskatila, Pam polizia, kubatar homosexuala, Ming Chun narkotrafikatzailea... Honeek guztiek azkenean mozorropean agertuko dabez beren benetako asmo eta izaera, onerako batzuk, txarre-rako besteak. Zigorrena argi dago, ez da lar gatxa igertzea, thailandiar neskeagaz zelan edo halan oheratzea hain justu, hori baino ez darabil gogoan, behin eta barriro barregarri ixten dauan asmoa. Eta izaera sexuala be izango da beste protagonisten moropiloa. Thriller bidera jo barik, halan egin eikean eta, egileak egoeraren parodia umoretsua aurkezteko hautua egin dau. Behintzat, Zigorrek bizi dituan egoerak nahikoa xelebrea eta barregarri dirala emoten dau aditzera. Horretan be nabarmen-nabarmena da narraztailearen partehartze zuzena testuaren harian. Holan, irakurleagaz hartuemon estua gordeteaz gain, testuari berari seriotasuna kentzen deuto. Horregaitik guztiagaitik, *Mozorroaren xarma* dogu Asel Luzarragaren orain arteko liburuirik umoretsuena, eta zilegia bajat, "Friki" kulturatik hurbilen dagoena dala gehituko neuke.

Alvaro Rabelli